

IPAZTER

Bizkai'ko Foru Aldundiaren laguntzaz



© *Augustin Zubikarai*
Juan Fernandez Eiguren

Legerako Gordetza BI-642-87'
Depósito Legal

Argitaldaria: GAUBEKA Irarkola - Gernika

Azala: Paulin Zubikarai
Argazkiak: J. Fernandez Eiguren

IPAZTER

Augustin Zubikarai
Juan Fernandez Egiguren

1987

Irakurleei

Gure azken gerra ostean erbestetik etorri eta bereala Ondarroa'tik Ea'ra ostera batzuk egiten asi nitzan, maite-miñetan.

Aldi aretan gaitz zan kotxetan ibiltea, aukerarik egoten ez zala-ko, eta sarri joaten nitzan Lekeitio'tik Gardata zear, Ipazter'en geratu be barik, oiñez, Ea'ra. Edo ta Éa'tik Lekeitio'ra gero nire errira jarraitzeko.

Orduntxe asi nitzan Ipazter ezagutzen.

Gero Erkiaga'tar bategaz ezkontzean, nire begirunea samurtu egin zan Ipazter'en alde. Abizenak eten egiten dau eta ezin aztu, azken baten, Erkiagararren sorlekua inguru onetan dagonik.

Origaitik «Ondarroa baserri giroan» liburua idatzi ondoren eta nire auzoko berriatuarrak (ondarrutarren gurasoak ipaztertarrak lekeitiarrenak diran lezj «Berriatua» idaztera zirikatu nindueanean etá amaitutzat emon, nire laguntzaille argazkilariak geiago egingo ez ete gendun itandu eustanean, Ipazter'egaz gogoratu nitzan, ain zuzen be eleiz-ate au bere kiroldegi barria amaitu eta bere aritz famatuen ize-na betirako bere lan andi baten ormetan irarteko asmotan ebillanean.

Ara asmo au be bete eta orra /iburutxoa amaituta. Nik esango neuke beste batzuen asiera izan leikela, kontuan euki ezkerro Bizkaia'n erri txiki batzuk euren inguruan sortu ziran uriei ez bakarrik lurrea, bai eta odola eta nortasuna be emon eutsoela.

Mundu obeago batera joan zan nire emazte Erkiagararra gogoan dodala, pozik ezkintzen dauosat Ipazter'eko erriari nire lan au eta bardin dagitso nire lankide argazkilariak.

Borondatez onartu eta akatsak parkatu.

Egilleak

IZEIMA



Erririk geienak euren lekukotasuneko izena daroe.

Zelan da deitura jatorra, Izpaster, Ispazter, Izpazter, Ipaster?

Eritxiak eritxi Euskaltzaindiak, bere Udalen Izendegian, au diño:

Gaurko izen ofiziala: Ispaster.

Euskal izena: Ipazter.

Bertakoen deitura: Ispaztertar.

Ez dakit Resurrección Maria Azkue jakintsuak, bizi ba litz, deitura ori orrela aintzat artuko leuken.

Berak, bere idazki eta liburuetan, Ispazter erabilten eban.

Dana dala gaurko erakunde ofizialak Euskaltzaindiari eskatzen dautse eritxia, eta arena ba dakigu. Ipazter.

Zegaitik? Ba bertakoak iñoiz emon izan daberen erantzuna onelakoa izan da: erriak ala deitzen dauala.

Gure ustez, jatortasun andirik ez dago or, erria, deitura eta izenetan, denporekaz eta beti be, izkiren bat, letraren bat galtzen joaten dalako.

Baiña...

Nundik datorren izena?

Iturriza istorigilleak diño, itxas egala esan nai dauala, itxas bazterra.

Ordez Isak Lopez Mendizabal'ek beste au diño: Ispaster, en la villa de su nombre en Bizkaia. = Rincón de juncos (de iz = junco y bastér). («Etimologías de Apellidos Vascos, 544 orrialdean).

Eta ain zuzen Ipazter'ek itxasoa dauka berari musuka, beraz itxas bazter leikena da.

Baiña muga dauko baita be Ea edo bertakoen esanetan la'gaz eta aren izena be Ea edo iatik dator, au da, erderazko juncal esan-guratik.

Ala ta be ezin ukatu ingurukoer. pentsabidea, aurrean dagon itxasoan oiñarritzen danik.



MUGAK

Zazpi erri eta itxasoaren erdian dago Ipazter.

Ara bere mugak:

Sorkaldean: Lekeitio eta Mendexa.

Egoaldean: Gizaburuaga, Nabarniz eta Amoroto.

Sarkaldean: Ereño eta Ea.


Iparraldean: Ea eta Kantauri itxasoa.

Lekutzea: zabaleko 43°, 21 '40" tan.

Luzerako 1°, 08'30" tan.

Mugak aitatutean berez dator itaun bat: Nun eteten da Ipazter eta Lekeitio'ren arteko jaubetasuna?

Jakiña da uriak (villak) sortuten ziranean, iñoren lurretan sortzen zirala geienetan, inguruko eleiz-ate (anteiglesia) ziranen lurretan, eta urte askotako eztabaiden oiñarri izan zirala.



Orrela Ipazter eta Lekeitio artean be, batez be Maria Diaz de Haro zanak, esku zabala izan zalako sortu eban uriagaz, inguruko lurraldeak be berari emonaz.

Bardin gertatu zan Ondarroa eta Berriatua'gaz.

F. Okamika'k, «Lekeitio neure jaiok-erria» («Lekeitio mi pueblo natal») deitureagaz agertutako liburutxoan, au irakurten da 84 orrialdean:

Amalau eunkadako lenengo urtietan
Maria de Haro, gure andrandia
ez izenez «Ona», ontzat emon eban
Lekittiar erri berri agirian
lurralde aundi, zabaltzen zana
Ondarru ingurutik, laraiño iya.

Baiña ez eban euki kontuan
alboko elizate, erri auzoak
emoniko jabetasuna
geure lurralde gañean.



Ipazter, toki alai eta osasuntzu...

AUZOAK ETA EGOERA

Eleiz-ateen bizia auzoetan egoten da.

Auzo bakoitzak bere nortasun berezia eukiten dau. Bear ba da len geiago, gaur baiño. Bakoitzak bere eskubideak, bere jaiak eta patrioiak eta konbidautzak, bere ezaugarri eta oiturak eta usuarioak, bere bide nausiak eta anda-bideak.

Ipazter'en jaubetasuna 22,68 kilometro lautuetan (kuadratu-tuetan) mugatuten da.

Ipazter, alfabetaren ordenan aitatuta, era onetan kokatuten zan:

Auzoaren izena	Uriburutik daukan aldia	Itxas gaiñeko egoera
Arropain	5,5 km.	30 metro
Artikas	2 »	100 »
Barainka	1,3 »	140 »
Kortazar	0,1 »	120 »
Kurtziaga	4,2 »	100 »
Gallate	1,1 »	130 »
Gardata	3,5 »	80 »
Ipazter		110 »
Larrinaga	0,1 »	120 »
Mendazona	1,5 »	130 »
Solarte	1,5 »	140 »
Solaunak	1,1 »	130 »

Gaur, erraztutearren, udal paperetan auzoak alkartuago erabilten dira, era onetan:

Arropain-Kurutziaga.

Barainka

Artikas-Gardata

Elخالde-Kortazar-Larrinaga.

Mendazona

Gallate-Solarte

Solaunak

IZENEN ESAN NAIA

Askoren jakin miña izaten da gaur euskeraz erabilten diran leku-izen, auzo eta erri-izen eta abizen (apellidu) jatorrak ze esan naia dauken beste izkiintzetan.

Ez dago eritxi bardiñik askotan. Toponimi edo lekuko izendegi ori, begi eta aburu askotatik ikusten da.

Onetan, Ipazter'ko auzoen izenak, esan-bide au euki leikie batzuen irizpidean.

ARROPAIN.- Arro edo arru = barranku'tik artu ezkeru, barranku orren gaiñaldia adieraziko leuke. Bestera arro = larre'tik artu ezkeru, larre-gain edo antzerako zerbait.

ARTIKAS.-Arteaga izenaren erabide edo aldaketa dala esaten dabe. Au da, arta-toki, arta-leku edo kidekotzat erabili leike.

BARAINKA.- Iru leku edo ta elorri baltz edo endrinoa dagon tokia.

ELEXALDE.- Eleiz-alde, eleiz ingurua.

GALLATE.- Txillar, giñar toki edo ta larre edo lardia.

GARDATA.- Gardu tokia.

KORTAZAR.- Korta deitura erabilten zan antxiña erriaren lekuarentzat, eta kortazar danen lurraldi zar lez artu bear da.

KURUTZIAGA.- Kurutze tokia. Baten batek Gorostia be artuko leuke bere esangarrirako.

LARRINAGA.- Larre = pastu ugari dagon tokia.

MENDAZONA.-Pastu ona dagon tokia. Beste batzuk toki menditsu lez artzen dabe.

SOLARTE.- Solo-arte, zélai arte, zelai toki.


SOLAUN.-Solaunak deitzen dautse auzo oneri. Lengo liburuetan garbi irakurten da SOLOARAN. Batera nai bestera solo toki edo zelai-artetzat erabili lei deitura onen esan-naia.

ETXEAK ETA BIZI LAGUNAK

Gaurko eran zenbatuten diran lez, Ipazter'ko etxe bizitzak, auzoka zenbatuta, kopuru oneitan banatuten dira:

<u>Auzoak</u>	Etxeak
Arropain-Kurtziaga	13
Artikas-Gardata	28
Barainka-Kortazar-Larrinaga	22
Gallate-Solarte	32
Mendazona	17
Solaunak	14
<hr/>	
Guztira	143

Bizilagunei buruz, Ipazter'ko erreferentzirik zarrena, liburuetan, Labyru'k bere Historia General de Bizkaia'n emoten dabenean billatzen dogu.



Bere esanetan, eta Lekeitio'ko Andra Mari Parrokiko liburuetan irakurri ebanez, 1463 urtean Ipazter'ek 70 su-etxe edo fogera eukazan eta eurretan 270 bizilagun.

1 685 urtean Bizkaia'n egin zan fogeraziñoian, Ipazter'ek 11 6 eta iru laurden eukazan.

Neurri lez esan daigun, garai berean, urte berean, inguruko erriak beste kopuru oneik eukezala fogeraetan:

Berriatua'k, 113 1/2 eukazan.

Amoroto'k, 51 eta erdi.

Mendexa'k 46 eta erdi

Bedarona'k, 48

Natxitu eta Ea'k, batean, 83'eta erdi.

Ereño'k 52 eta erdi

Ibarrangelu'k 90.

Geroago, Labayru berberak diño, 1787 urtean, Ipazter'ek 937 bizilagun eukazala, eurretatik 487 gizonezkoak eta 459 اندرازكواك.

Gure denporetan berakada andia egin dau, gure bizi-aldiko urte batzuk kontuan eukita igarriko dogunez:

Urtea	Bizilagunak eskubidez	Bizilagunak izatez
1925	1.232	1.159
1960	1.041	947
1970	853	798
1981	628	635

Gizaldi onetan polito asi zan izatezko bizilagunen osotasuna geitzen. 1900 urtean 1.125 bizilagun eukazala, 1910 urtean 1.1 53; gero 1 920'n 1.1 59 eta arrezkero beraka dator, goiko zenbakietan ikusten dan lez.

Zoritxarrez Ipazter'en barakada zotin eragitekoa da erri baten bizitzan, batez be 1973/1978 bitartean euki ebana, kontuan eukita bere bizilagunen arteko euneko ogei baiño geiágokoa izan zala, zeatz esateko, % 20,24.

Beste bost urtetan 1978/1983 bitartean, oraindik be berakadan jarraitu eban, nai eta oraingotan, denpora orretan, ia euneko bostera eldu, zeatz esanda, %4,86.

Bizkaia'n berakadarik geien egin daben errien artean, goitik asita, amasei (1 6) garren erria da.

Esan bearreko da baita be Ipazter'ko bizilagunen artean, urte luzetan, erbestetarrik ez dala ezagutu izan.

Orrela, estadistiketan ikusten denez, 1950 urtea aurretik lau gizonezko eta beste lau emakumezko bakarrik ziran erbestetik etorriak. Gero, beste hamar urtetan beste bi geitu ziran. Urrengo beste hamar urtetan beste bederatzia eta 1970 urtearen ondorengo beste hamarretan, 32 lagun.

Origaitik 1981'ko errolltzean, zentzoan, 51 lagun batzen dira erbestetik etcritakoen artean.



IZKUNTZA - BERBETA

Ipazterreko izkuntza oia, berbete jatorra, eta erabilten dana, euskera da, Bizkai'ko euskera, Markiñaldean egiten dan euskera-ren saillekoa.

MEIMDIAK, ERREKAK eta ITXASERTZA

MENDIAK.

Ipazter menditsua da.

Bere mendien artean Otoio da ezagunena. 394 metro. Baiña or dagoz, baita, alfabeta ordenan idatzita,

Ailuiz
Arterreta,
Artika,
Galarrei,
Gazetamendi.
Iturruntzaurreta
Leiabe,
Maloriaga,
Muñozuri
Potzugilleta,
Sakonandieta,
Txorramendi eta
Uxa.

ERREKAK

Erreka bi dira Ipazter'en lurrak igaroten dituenak.

Arrotiaga, Ipazter'en jaio eta bertako lurretatik zear itxasoratzen dana; Argin, Ipazter'en jaio, Argin erroteari bizia eta indarra emon eta Ea'n itxasoratzen dana.

ITXASERTZA

Aitz-arte eta aitz-zuloz beteta dago Lekeitio eta Ea bitartean Ipazter'eko itxas ertza. Lanpernetan aberatsa, baiña itxasoak gogor jotzen daualako, arriskutsua.

Bere tokiak izen jatorrak daukez:

Azurdi,

Uskolaitza,

Gurbizapia,

Iru aitzak,

Soldadu aitz,

Aurrekolueta,

Monteleta,

Arrakulu,

Penitentziarri eta

Ogella'ko ondartzta, itxasoak gogor jo ta garbi zaintzen dauan ondarez betea.

GARAIXAK (ORRIOAK) eta ERROTAK

Zoritxarrez Ipazter'en egozan garaixak, gaur euren izate eta kutsua galduta agertzen dira.

Batzuei lengo tentekuen albotan bestelako ormak egin dautsez, besteak zeregin ezbardinietan erabili.

Ipazter'en, gaur, garaixen ezaugarriak baiño ez dira geratzen.

Ala

Axpe-aurrekoa,

Axpe-Kalzada,

Arana torre eta

Uriarte'koak

ERROTAK

Argin.- Paper batzutan Ergin irakurten da, baiña bertokoak Argin. Gaur jausita dago. Abade batek egin eban errota au.

Aixeder.- 1 6 urte bakarrik errota lez erabili zana, Olandarren erara egiñikoa,

Aixe-eder.- Gaur utsik.

Ubillaga edo Urubiza.

ARMARRIDUN (Eskudodun) ETXEAK

Atxabal.- Solarte auzoan.

Arana torrea,- Larrinaga auzoan.

Ormaegi.- Kurtziaga auzoan. Etxeen zeaztasuna emotean agertzen da bertan irakurten dan esaera.

Urkiza torrea.- Artikas auzoan.


Zubieta.


Ba dagoz beste etxe batzuk, etxe aurretan ezaugarri apaiñak daukezanak. Esateko,



Agarre.- «Lo hizo Jose Antonio de Aguirre Solarte, Año de 1805.

Aldeko Goiko.- «Jesus, María y José. Solarte Mayor. 1773 año.

Arrizubieta.- «Viva Jesus». Año de 1798.







ELEIZ BIZITZA

Ipazter, Amoroto eta Gizaburuaga, eta bai aldi baten Berriatua eta Mendexa, eta Bedarona bera be, Lekeitio'ko eleiz parroki bakarrean sartzen ziran. Eta ori, Lekeitio uri lez irasi (fundatu) aurretik.

(Lebayru, H.G.B. 1-240 orrialdean)

Luzaro bizi ziran buru jaube egin nairik, asarre, auzitan, eta ukatu be egiten ziran Lekeitio'ko parrokiari amarrenak emotera.

Baiña Lekeitio'ko parrokiak gora jotzen eban, eta goikoen indarrez bere naiak betetea lortu.

Orrela Bizkai'ko Jaun izan zan Enrike Larakoaren Seme nau-siak, Juan'ek, Lekeitio'ko abadeen eskubideak zaintzearen aldeko erabagi zorrotz bat emon eban 1410 urteko Urtarrilla'ren 27'an.

Bere esanetan Lekeitio uriko Andra Mari Eleizako eleiz gizonen alkarie oroko'rak (universidad de los clérigos), Amoroto, Ipazter, Gardata eta Asumendi'ko «menditarrak» («los monteros») ukatzen z relako egindako eskáriari errazoia emoten eutsan.

Alaz eta oneik euren jarraitzen eben, eta dirudienez, 1463 urtean barriro bizi-bizi erabillen auzi ori Ipazter, Amoroto eta Gizaburu'ko eleizatetako bizilagunak Lekeitio'ko parrokiari duintasuna ukatu nairik euren menpetasuna zaintzeko; eleiz-ate bakoitzeko parrokiak, Lekeitio'koaren ardura eta menpetasunean barik, jaubetasun osoko biurtu nairik. Eta urte orretan, 1463'en Lekeitio'ko abadeak 800 orrialdeko liburu bat bete eben, euren aldeko gorabera, testigantza eta agiriekaz.

(Iturriza, Historia G. de Bizkaia 1-250 orrialdean)

Baiña urteak joan ziran orretan, auzietan, eta erri-txikietakoak ez eben lortu euren guraririk 1519 urte arte.

(Labayru, H.G.B. 111-248 orrialdean)

Urte onetan eldu zan Erroma'tik askatasuneko bula, edo obeto esanda, eleiz-atetako eleiza bakoitzari parroki ezaupideko nor-tasun osoa emoten eutsan bula. Parroki bakoitzari, bertako arimen serbitsurako abade gaituak eukiteko eskubidea emonaz, bai eta bateotarako urontzia, illentzako illobiak (sepulturak) eta abar.

Bula ori bitarte, llobiak (sepulturak) eta abar.

Bula ori bitarte, Lekeitio'ko parroki beartuta geratzen zan Ipazter'erako abade bi bertan biziko ziranak izentatzera, beste bi Amorotora'ko eta bat Gizaburuaga'rako.

Eta orretarako, banaketa eta izentapenak zuzen eta jator egin eta erabagi al izateko, Salamanca eta Leon'go gotzaiñak eta Kalagorri'ko arduradun nagusia aukeratu eta bereiztu ziran aolkari (konsejulari) eta begirale lez.

(Labayru, H.G.B. IV-91)

Bula orretan argi esaten zan gau eta egun abade orreik euren ardurapean ipinitako parrokien lekuetan bizi bear zirala, aldi aretan eta geroago biziko ziranen mesedean, bear ziran iltokiak gertu eta bedeinkatu eragiñaz, eta bakoitzaren tokitik bizi biderakoa lortuta.

Ori, ezpai barik, orduko bizitzarako kaku eta lotuera gogorra zan, eskubideak artuta egongo ziran ogi-bideko abadeak aurkituko ziralako Lekeitio'n.

Orrela Ipazter eta beste errietako parroketako bizi-lagunak Lekeitio'gaz eukezan kateak etetera eldu ziranean, barriro ango abadeak auzitan, pleitoan asi ziran, eta egoera nastetsu ori amaitzeko, Korrexidoreari agindu jakon erriaren giroa aztertu eta zuzentasunak agintzen eban erabagi zeatz bat artzeko, andik aurrera asarre-auzirik egon ez zedin, ortara makurtzen ziranei amar milla marabeditako isuna (zigorra) ezarriaz.

1 546'ko Apirilla'ren 9'an Kalagorri'ko gotzaiñaren ordezkaria etorri zan parrokia ikustera.

Eta agindu eban bereala asteko parrokian bateatzean ziranen liburuak eroaten, urtea, ille eta eguna izentatuaz, bai eta aita-besutakoen izenak be. Barain ezkontzen ziranenak.

Bai eta galeraso egin eutsen ipaztertarrei domeka eta jaietan beste iñungo parroketara joatea meza entzutera, bertako parrokoaren baimen barik.

Agindu eban, baita, iñor ez sartzeko eleizan balaztea, lantza, aukon (dardu) eta azkonagaz eta eleizatik ogeitamar oñetara ezalako jokorik ez egiteko. Gaiñera eleiza barruan, ez bere kanposantuan, uri batzarrik egiten ez lagateko.

Eta agindu eban baita be, bataiotarako ur bedeinkatu ontzia erionagaz egoalako, ille bi barru konponduta eukiteko.

(Labayru, H.G.B. IV, 246 orr.)

MIKEL DEUIMA



Gaur, parrokia, Mikel deunaren izenekoa da.

Ikusi denez, Ipazter'en ba egoan 1519 urte aurretik eleiza bat. Ba dirudi lenengotan Aizpee'ko San Martin deitzen eutsela.

Orain parrokia dana urte orretan egiña zala esaten da. Ez dago ezpairik urteetan Lekeitio inguruko erri oneik erabili eben auziak, euretako bizilagunak eukezan lengo eleizak barriztu, anditu edo beintzat eskubide osoko parroki izateko erako egitera zirikatu eta alegindu zituanik.

Geroago 1668 urtean barriztu eta anditu zan eta 112 oin luze eta 57 zabalekoan kokatu. Bertan, erriko etxe edo familientzako illobiak (sepulturak) gertutean, 89 illobi atara ziran eta orrela eleiztarren artean banatu.

Elaizetan lur emotea galerazo zan, baiña luzaro iraun eben sepulturak eleiz onetan, beste parroki askotan lez, famili bakoitzak bere tokia gordeten ebaia.

Jendearentzako jezarlekuak ipini ziranean galdu ziran sepulturen lekuak, eta baldosaz estalduta geratu. Baiña epistola aldean jendearentzako jezarlekuen azpian, an geratzen da oraindik antxiñako illobi baten aztarrena; Agirre Solarte 1616, diño.

Iturriza kondaira idazlearen esanetan, bere denporetan, 1 790 urte inguruan, larogei eta amabost etxe batzen ziran Izpazter'en parroki onetako eleiztar lez, eta euretatik 500 lagun ziran jaunartzeko eskubidedun lez batzen ziranak.

Eleiz bizitzari dagokionez esan bearreko da ipaztertarrak, erriz ala diran guztiak, ez dirala bertako parrokiko eleiztarrak. Orrela gertaten da Arropain, Artikas, Gardata eta Kurtziaga auzoetako bizilagunekaz, oneik Lekeitio'ko Andra Mari parrokiko eleiztar lez jarraitzen dabelako.



Orrez gaiñera, Mendazona auzoan ba dagoz baserri batzuk Ereño'ko parrokian sartuta dagozanak. Ala Aboitiz izenekoak.

Erriko orduaria (erlojua) parrokiko torrean dago.


1 836 urtean egiña da, eta Arrasate (Mondragoe)ko Joze Zugazti'k egiña da. Mekanikua da, landua, esfera bakarra eta tren bi daukaz.

Ipazter'ek, bere lurraldean, ba daukaz antxiñetako iru ermita.
Martin deunarena,
Santiago apostuarena
Kurutze deunarena.

Urte asko ez dirala ermita oneik erre egin zituen. Ipaztertarrak bereala erabagi eben ermita orreik barriztutea eta ala irurak gaur apain eta txukun agertzen dira.



Santiago deunaren ermita



Martin deunarena



Santa Cruz de unarena

BESTE JAKINGARRI BATZUK

Parrokiak ia 1.300 m² daukaz.

Egiturari begira, pizkunde (renacentista) deitzen danekoa.

Aldare nagusia, barrokoa.

Bateotako liburuak 1560 urtean asita dagoz. Sendotza (konfirmaziñoia) artu ebenena, 1791 urtean. 1811 urteko kontu liburu bat be ba dago. Urte orretan parrokiak 11.105 errial eukazan.

1900 urtean 20 ume bataiatu ziran, eta bost ezkontza eta 17 eriotza egon ziran.

Urte orretan illeta (entieru) bakoitza, batez besie, 53 peseta kostaten zan. Jose Iñazio Zatika Rementeria il zanaren kontutik dakigu dirutza orren banaketa zelan egiten zan:

Ilia baserritik kanposantura eroatea	3,00	peseta
Illetako meza	2,50	
Parrokoaren eskubideak	10,00	
Beste abade birenak	8,00	
Sakriatauaren eskubideak	2,50	
Abeslariantzat	2,50	
Kanpai jotzaillea	4,00	
Akolutu birenak	1,00	
Parrokiaren eskubideak	7,50	
Illetako maia (katafalkoa).	9,00	
Argia	<u>3,00</u>	
	Guztira	53,00

1909 urtean erretella barria egin jakon parrokiari. 1.610 peseta kostatu zan. 1985 barrero egin bearra gertatu zan. Dagoni-lean (Abustuan) egin zan, 5'tik 29 bitartean. 120 langille ibilli ziran, borondatez.

21 milla tella barri ipini ziran; 400m² lateri barriztu, bai eta 12 laxka (biga txiki) eta solube edo biga andi bat barriztu ziran eta ubideak ipini. Guztira 1.548.516 peseta kostatu zan.

SAKRISTAU ETXEA.

1 769 urtean pentsatu zan sakristau bat izentatzea eta etxe ta guzti gaiñera. Orretarako «ur-gorria» deitzen dan mendiko 8.200 m² erosi ziran eta parroki alboko solo batzuk. Eta etxea egin. Gaur barriztaten diardue eta etxe jator geratuko da plazaren ega-lean.

IPAZTER'KO ETXEAK, eta EURETAKO JAUBE ETA ERREIMTERUAK 1745-1746 urtetan

XVIII garren gizaldian iru bidar egin ziran Bizkaia'n etheen erroltzeak. Sua biztuten zan etheenak, esan bear. Origaitik erdezko berba erabiliaz «fogeraziñoiak» deituten eutsen.

1704 urtean egin zan lenena.

1745-1746 urtetan bigarrena.

1796 urtean irugarrena.

Irurak atara doguz Gernika'ko Batzar Etxeko Artxibotik. Antzekoak dira, bata besteagandik aldaketak egonarren, ez andiak.

Origaitik erdikoa aukeratu dogu liburu onetan argitaratzeko.

Erroltze au egiteko, Diego Alzedo jauna, Erroltze serbitsuko ordezkariagaz batean, Ipazter'ko ordezkari lez Martin Leniz Zabala, bertako alkatea eta Patrizio Etxebarrieta, Iñazio Dolara txikia eta Pedro Urrengoetxea batu ziran eta Zubieta torrean idatzi eben ortarako agiria.

Laburtuta, eta euskeratuta, agertzen dogu erroltze ori:

1. ZUBIETA TORRE ÉTXEA.- Jaubea: Josefa Adan de Yarza. Bizi diranak: Migel Kortabitarte eta Juan Oriosolo.
2. ARRUPAIN ETXEA.- Jaubea: Eleiz-atea. Bizi dana: Antonio Atxabal.
3. ORMAEGI AURREKOA.- Jaubea: Jose Amillategi. bertan bizi da.
4. ORMAEGI TORREA.- Jaubea: Lekeitio'ko Eleiz-gizonak. Bizi dana: Migel Egiguren.
5. AMILLAGA.- Jaubea: Santiago Uskola. Bizi dana: Min de Kortabitarte.
6. BENTABARRIA.- Jaubea: Pedro Mari Unzeta. Bizi dana: Santiago Iturraspe.
7. ELSONETA AURREKOA.- Jaubea: Jose Bizente Rentería. Kapitana. Bizi dana: María Arana.
8. ELSONETA ATZEKOA.- Jaubea: Pedro I. Madariaga. Bizi dana: Juan «Probintzianoa».

9. GOENENGOA.- Jaubea: Antonio Arrinda. bertan bizi da.
10. GOJEASKOA.- Jaubea: Katalin Goro. Alarguna. Bertan bizi da.
11. KURUTZEAGAKOA.- Jaubea: Juan Zarakondegi. Bizi dana: Emeterio «Probintzianoa».
12. AGIRRE.- Jáubea: Simon Bengoetxea. Bizi dana: Mateo Olabe, bere aitagiñarreba.
13. AGIRRE TORREA.- Jaubea: Dominikar monjak. Bizi diranak: Jose Txopite eta Juan deitzen dan beste bat.
14. ARTAZAGOIKOA.- Jaubea: Simon Agirre. Bertan bizi da.
15. ARTAZA ERDIKOA.- Jaubea: Martin Gozo. Bertan bizi da.
16. ARTAZA BEKOA.- Jaubea: Jose M. Garamendi. Bertan bizi da.
17. IPARRAGIRRE.- Jaubea: Bizente Renteria. Kapitana. Bizi dana: Franzisko izeneko bat.
18. BATIZKOA.- Jaubea: Pedro I. Madariaga. Bizi dana: Txomin Amoroto.
19. BATIZ ERDIKOA.- Jaubea: Juan Mendezona. Bizi dana: Iñazio Gallettebeitia.
20. BATIZ NAUSIA.- Jaubea: Monterron'go kondea. Bizi diranak: Pedro Garamendi eta Jose deiturako bat.
21. ZERENGA.- Jaubea: Dominikatar monjak. Bizi dana: Franzisko Etxebarria. Oarra: Etxe onek ez eban ordaintzen ez amarrenik, ez asikiñik, ez bestelako zergarik.

GAR DATA KOF RADIA

22. GARDATABEITIA.- Jaubea: Juan Mendazona. Bertan bizi da.
23. URREBASO.- Jaubea: Gabriel Eizmendi. Bertan bizi da.
24. —.- Jaubea: Kristobal Atxurra. Bertan bizi da.

25. ORMAETXEA.- Jaubea: Jose Gallatabeitia. Bertan bizi da.
26. ORMAETXE GOIKOA.- Jaubea: J. Gallatabeitia. Bizi da: Fco. Arrizubieta.
27. ARANA.- Jaubea: J. Bermeosolo. Bertan bizi da.
28. BEINA.- Jaubea: Antonio Uribarren. Bertan bizi da.
29. ARRIAGAKOA.- Jaubea: M. Txopitea. Bizi dana: J. Legarra.
30. URIKOA.- Jaubea: Iñazio Goro'ren kapíllauarena. Bizi dana: Jose Arriaga.
31. ETXEBARRI.- Jaubea: Madalena Etxebarria. Bizi dana: Juan Bta. Foruria.
32. GOJEASKOA.- Jaubea: Jose Burgaña. Bertan bizi da.
33. GOENEKOA.- Jaubea: Maria Zatika. Bertan bizi da.
34. ZATIKA NAGUSIA.- Jaubea: Franzisko Artaza. Bizi diranak: Juan Aboitiz eta A. Arteaga.
35. ZATIKA.- Jaubea: Juan Leaegi. Bertan bizi da.
36. ZATIKA BEKOA.- Jaubea: Min Legarza. Bertan bizi da.
37. ZATIKA GOENENGOA.- Jaubea: Domingo Kortabitarte. Bertan bizi da.
38. URKIZA TORREA.- Jaubea: Pedro M. Unzeta. Bizi dana: Migel Aldasolo.
39. AZESORIA GOIKOA.- Jaubea: Pedro Unzeta. Bizi dana: Juan Zurbaga.
40. ELORZETA.- Jaubea: Fco. Galdona. Bizi dana: Alfonso.

KORTAZAR KOFRADIA

41. GAZETA.- Jaubea: Juan Txopitea. Bizi dana: Juan Zarando.
42. ASPE.- Jaubea: Jose Gizaburuaga. Bizi dana: Pedro Zarandona.

- 43 CALZADA ASPE.- Jaubea: Pedro Ugarriza. Bertan bizi da.
- 44 ASPE AR3IÑENA.- Jaubea: Juan Arrizubieta. Bertan bizi da.
- 45 ASPE ERDIKOA.- Jaubea: Domingo Uriarte. Sertan bizi da.
- 46 ASPE ETXEBARRIA.- Jaubea: Franzisko Artaza. Bizi dana: Manuel Arrizubieta.
- 47 LEGORTZA.- Jaubea: Andres Aranbarri. Bertan bizi da.
- 48 IGARTUA.- Jaubea: Jesusen Lagundia. Bizi dana: Mígel Ulazia.
- 49 ARBI0ND0.- Jaubea: Juan Urrusolo. Bizi dana: Juan Zubiaur.
- 50 BEAZKOA.- Jaubea: M. Leniz Zabala. Bizi dana: Madalena Mundaka.
- GOJEAZKOA.- Jaubea: Dr. Gizaburuaga. Bizi dana: Juan Bermeosolo.
- 52 KORTAZAR.- Jaubea: M. Zatika. Bertan bizi da.
- 53 KORTAZAR ALDEKOA. Jaubeak: Maria Atxabal eta Antonio Aranegi. Bizi diranak: Maria berbera eta Juan Aíxabal.
54. ERREMENTARIKOA.- Jaubea: M. Etxebarrieta. Bertan bizi da.

ELEXALDEKOFRADIA

55. Jaubea: Martin Zatika. Bizi dana: Migel Oriosolo.
56. Jaubea: I. Basterretxea. Iñor ez da bizi.
57. Jaubea: Juan Urrutia. Bertan bizi da.
- Jaubea: Juan Etxebarrieta. Iñor ez da bizi, erreta dagolako.
58. Jaubea: Artaza. Bizi diranak: Katalin Telleria eta Mari Natxiondo.
59. Jaubea: Juan Bta. OfÉmarra. Bizi dana: Jose Abaitua.
60. Jaubea: Artaza. Bizi dana: Juan Zigarda.

61. Jaubea: Eleiz-atea. Iñor ez da bizi. Udal etxea. Bizi dana: Domingo Arana.
62. Jaubea: Domingo Arana. Barriztuteko beratua.
- 62 (bis). Jaubea: M. Erkiaga. Bizi dana: Juan Barainka.
63. Jaubea: Artaza. Bertan bizi da.
64. Jaubea: Felipe Atxabal. Bizi dana: Katalin Atxabal, ezkongai.
65. Jaubea: Juan Btá. Uriarte. Bizi dana: Martin Arritola.
66. Jaubea: F. Zirarda. Bizi dana: Juan Goro.
67. Jaubea: Karlos Barainka. Bizi dana: Iñor ez. Apurtuta.
68. Jaubea: Manu Etxebarrieta. Bizi dana: Madalena Uribe, ezkongai.
69. Jaubea: Martin Erkiaga. Bertan bizi da.
- 70.

LARRINAGA KOFRADIA

71. LARRINAGA BEKOA.- Jaubea: Juan Atxabal. Bertan bizi da.
72. LARRINAGA GOIKOA.- Jaubea: Egiguren. Bertan bizi da.
73. URIBARREN.- Jaubea: J. Adan de Yarza. Bizi dana: Manuel Etxebarrieta.
74. URIARTE BEKOA.- Jaubea: Juan Bta. Uriarte. Bertan bizi da.
75. URUARTE NAUSIA.- Jaubea: F. Artaza. Bizi diranak: Sebastian Garatea eta M. Agirre.
76. ARANA.- Jaubea: Tomas Gazitua. Bizi diranak: M. Jauregi eta D. Zarandona.
77. DOLARAGA BEKOA.- Jaubea: Juan Igarza. Bertan bizi da.
78. DOLARAGA GOIKOA.- Jaubea: Juan Doloraga. Bertan bizi da.
79. AGIRRE.- Jaubea: Martin Ormaegi. Bizi dana: Santiago Uriarte.

MENDEZONA KOFRADIA

80. ETXEBARRIA.- Jaubea: Pedro Unzeta. Bizi dana: J. Aboitiz.
81. ANDIKOETXEA.- Jaubea: Juan Zarandona. Bertan bizi da.
82. ZARANDONA BEKOA.- Jaubea: Dgo. Bengoetxea. Bertan bizi da.
83. ZARANDONA GOIKOA.- Jaubea: Jose Agirre. Bertan bizi da.
84. IRUETA.- Jaubea: Iñazio Asterrika. Bizi dana: Domingo Longa.
85. ETXEBARRI.- Jaubea: Juan Garatea. Bertan bizi da.
86. GARATEA.- Jaubea: Domingo Uriarte. Bizi dana: Migel Uriarte.
87. MENDEZOIMA BEKOA,- Jaubea: Iñazio Asterrika. Bizi dana: Antonio Azkoitia.
88. MENDEZONA ERDIKOA.- Jaubea: M. Mendezona. Bertan bizi da.
89. MENDEZONA GOIKOA.- Jaubea: Kristobal Bakeriza. Bertan bizi da.
90. ABOITIZ.- Jaubea: Juan Endeiza. Bertan bizi da.
91. ARRITOLA.- Jaubea: Martin Arritola. Bizi diranak: Arritola'ren ama eta amuma eta Juan Atxa.
92. ARTELEORRAGA.- Jaubea: Juan B. Arteleorraga. Bertan bizi da.

BARAINKA KOFRADIA

93. MADARIETA.- Jaubea: Madalena Arrizubieta. Bertan bizi da.
94. BELAUSTEGI.- Jaubea: Jesusen Lagundia. Bizi dana: Juan Zabala eta Fco. Arritola.
95. ZABALA.- Jaubea: M. Leniz Zabala. Bertan bizi da.
96. BARAINKA GOJEASKOA- Jaubea: Marcos Bengoa. Bertan bizi da.

97. BARAINKA.- Jaubea: Domingo Aboitiz. Bertan bizi da.
98. OLABE.- Jaubea: Martin Atxabal. Bizi dana: I. Madarieta.
99. BARAINKA ANSONEA.- Jaubea: Jose Renteria. Kapitana. Bizi dana: M. Atxabal.
100. BENGOETXEA.- Jaubea: Ana Zabala. Bertan bizi da.
101. IRAZEGIGOENENGOA.- Jaubea: M. Zarandona. Bertan bizi da.
102. IRAZEGI ERDIKOA.- Jaubea: Patricio Etxebarrieta. Bertan bizi da.
103. IRAZEGI BEAZKOA.- Jaubea: M. Madarieta. Bertan bizi da.
104. ARRIZUBIETA.- Jaubea: Pedro Gabika. Bertan bizi da.
- SOLARAN KOFRADIA**
105. ALEGRIA.- Jaubea: Martin Iturgatxe. Bizi dana: M. Mendazona.
106. SOLOAGA GOIKOA.- Jaubea: Lekeitioko jesulagunak. Bizi dana: Juan Zabala.
107. SOLOAGA BEKOA.- Jaubea Lekeitioko jesulagunak. Bizi dana: Juan Bernarriaga.
108. SOLOAGA GOITIA.- Jaubea: Maria Atxa. Bertan bizi da.
109. NATXIONDO.- Jaubea: Jose Natxiondo. Bertan bizi da.
110. URKIZA.- Jaubea: Jose Renteria. Kapitana. Bizi diranak: J. Arteleorrage eta J. Arrizubieta.
111. ERKIAGA GOIKOA.- Jaubea: Karlos Barandika. Bertan bizi da.
- 1 12. ERKIAGA ERDIKOA.- Jaubea: Jose Bollar. Bertan bizi da.
- 1 13. ERKIAGA BEKOA.- Jaubea: Martin Erkiaga. Bertan bizi da.
114. ETXEBARRI.- Jaubea: Jose Adan de Yarza. Bizi dana: Juan Errea.

- 1 15. BARRIA.- Jaubea: Jose Gizaburuaga. Bizi dana: Franzisko Larrinaga.
- 1 16. BARRIA.- Jaubea: Jose Gizaburuaga. Abe-reak eukiteko.

GALLATE KOFRADIA

117. ARANEGI.- Jáubea: Antonio Aranegi. Bertan bizi da, bai eta Juan Atxabal, errenterua.
- 1 18. ARANEGITXU.- Jaubea: Juan Arrizubieta. Bizi dana: Kristobal Lauzirika.
119. EGUEN GOIKOA.- Jaubea: Monterron'eko kondea. Bizi dana: Fco. Bengoetxea.
120. BARRENGOA.- Jaubea: Zeledonio Uriarte. Bertan bizi da.
121. SERTUTXA.- Jaubea: Domingo Uriarte. Bizi dana: Pedro Balenziaga.
122. GOENENGOA.- Jaubea: Juan Erkiaga. Bertan bizi da.
123. GALLATEGOITIA.- Jaubea: Jose Asterrika, abadea. Bizi dana: Franzisko Etxebarrieta.
124. GALLATE ERDIKOA.- Jaubea: F. Zabala. Bertan bizi da.
125. GALLATE EJEITIA.- Jaubea: Juan Gallatebeitia. Bertan bizi da.
126. ATXA.- Jaubea: Fermin Oriosolo. Bizi diranak: Juan Barainka eta Jose Arrizubieta.
127. ATXA AURREKOA.- Jaubea: Mondragoeko Aita Franziskotarrak. Bizi dana: Juan Arrizubieta

SOLARTE KOFRADIA

128. TXUMUTEGI BEAZKOA.- Jaubéa: I. Loperena. Bizi dana: B. Aboitiz.
- 1 29. TXUMUTEGI GOIKOA.- Jaubea: Bizente Renteria. Kapitana. Bizi diranak: M. Arritola eta Tomas Barainka.
130. AGIRRE SOLARTE.- Jaubea: I. Agirre Solarte. Bertan bizi da.

131. SOLARTE GOITIA.-	Jaubea: Domingo Sologaietia. Bertan bizi da.
132. SOLARTE ZELAIA.-	Jaubea: Juan Gamarra. Bizi dana: M. Iturgatxa
1 33. SOLARTE ALDEKOA.-	Jaubea: Juan Erkiaga. Bertan bizi da
134. ARTEAGA,-	Jaubea: I. Asterrika. Bizi dana: M. Gorgorista.
135. ATXABAL-	Jaubea: Maria Atxabal. Bertan bizi da.
136. ADORRIAGA.-	Jaubea: Pedro Madariaga. Bizi dana: Migel Lariz.
137. ETXEBARRIETA.-	Jaubea: Dgo. Uriarte. Bertan bizi da.
138. ARGINGOIKOA Errota.-	Jaubea: Juan Zarandona. Bizi dana: Bta. Barainka.
139. ARGINBEKOA.-	Jaubea: Franzisko Artaza. Bizi dana: J. Zarakondegi.
140. AIZE ERROTA.-	Jaubea; Dr. Gizaburuaga. Lanerako gertu barik dago.

Len esan dodan lez, orrialde oneitan 1745 urteko erroitzako jakingarriak ipiniarren, erroko bizilagunei buruz beste datu batzuk jakingarri dira.

1704 urteko agiritan ikusten denez, urte aretan Ipazter'en 139 etxe batzen ziran eta 529 lagun bizi danetara, au da, etxe bakoitzeko, batez beste, 4,1 9 lagun.

1796 urtean 138 etxe kontatzen ziran eta eurretan 821 lagun bizi, au da, etxe bakoitzean, batez beste, ia sei lagun, edo ta zeatzago esanda, 5,94.

1704 urtean etxe jaube ziranak, erreteruak ziranak baiño ugarixuago ziran.

Euneko berrogei ta amairu baiño geitxuago, zeatz esanda, %53,44 ziran jaubeak eta ia berrogei ta zazpi, au da, %46,56 ziran erreteruak.

ERRIKO ONDASUNAK LENGO GIZALDIAREN ASIERAN

1814 urtean, Bizkai'ko errien ondasunen agerpen bat egin zan. Erri bakoitzak eukan «bizia» garbi ikusteko eran.

Orrela, orduko zeaztasunak Gernika'ko Batzar Etxeko Artxi-butako paperetan agertzen dira.

Ipazter'eri dagokionez, erri au ezagutzeko ainbat datu erabili geinkez.

Lurren jaubetasun eta emaitz lez, kopuru oniek lortzen dira:

Etxeen errenta lez batzen zana 6.698 errial
Asikiñakaitik emoten zanaren balioa 1.870 »

Asikiñei buruz Eleizak urtero batzen eban dirutzan, azken bost urtetakoa batez beste artuta onela: 22 anega gari eta 33 anega arto.

Oneik iru zatitan banatzen ziran:

Irutik bi parroki berbertarako, eta irutik bata bertako abade bientzat.

Udalaren etxe eta mendietako emaitza 401

Kopuru au onela banatuten zan:

Erriak Elexaldean eukan etxearen errenta 55 »
Arrupain'go etxea eta beste solo bi 121 »
Erri-mendietako gaztain eta otatzak 125 »
Urtean amar burkada mendietatik ataraten ziranak 100 »
401 errial

Emaitzetan (produktoetan) errian artzen ziranak:

Garia 231 1/2 anega
Artoa 476
Indiarra 23
Gaztaiña 82
Sagarra 84 1/2karga
Txakoliña 138 pear (kantara)
Ikatz 76 burdikada

Merkataritza eta industri saillean, atal bi bakarrik agertzen dira irabazkarri lez:

Osagilleak garbian ataraten eban dirutza 350errial

Ipaztertar batzuk Estaduari aurreratu eutsen diruaren korriduak, euneko seian (%6).199errial.

Urte orretan Bizkai'ko Aldundiaren kontura Estaduari dirua aurreratuta euketak oneik ziran:

Jose Uriarte.	600	errial
Antonio Aboitz.	400	»
Iñazio Agirre.	320	»
Patxi Kortazar.	320	»
Juan Gabika.	320	»
Martin Arrizubieta.	320	»
id id (gaztea).	320	»
Iñazio Bengoetxea.	320	»
IñazioZamora.	200	»
Juan Pagadigorria.	<u>200</u>	»
	3.320	»

Dirutza orren emaitza da goian agertzen dan 1 99 errialeko kontua.

Lurren jaubetasunari buruz 1814 urtean Bizkaia'ri ezarri eutsen ordain bearrean (kontribusiñoian), Ipazter'eri 9.440 errial eta 31 marabedi ordaindu bearra etorri jakon, urtean iru bidar.

Orretarako etxe bakoitzaren errenta zeaztu bearra egon zan. Orretarako Ipazter'ko etxe guztien errenta 54.377 errialetan baliatu zan, eta dirutza orren euneko amazazia (%1 7) ezarri ordaindu bearkotzat.

Emaitzik geien zeaztu eutsezan etxeak, lenengo seirak esateko, oneik izan ziran:

Zubieta jauregia.	2.230	errial
Aboitz etxea.	701	»
Mendazona goikua.	701	»
Igartua.	668	»
Kortazar.	668	»
Solarte.	668	»

Ondorengo fotokopietan ikusten da guztien zerrenda.

4

Reparto de nueve mil seiscientos ochenta y uno y cinco y dos mil
que del Ayuntamiento Constitucional de esta Antezplana de Reparto impone
al no propietarios territorial para imponer en la Tesorería los 244 r. 5. 32 mrs. que s
siguen la circular de la Diputación Provincial, fha. 31 de Mayo último que anexo de
la han visto; en el que ha hecho para abonar el primer tomo de la contribucio
en tierra impuesta a esta misma Prov. por Decree de las Cortes de 13 de Junio
de 1810 año próximo pasado, en cuya cantidad, corresponde a la ciudad propiedad terri
torial, diez y siete por ciento, como se detalla en el Tomo siguiente.

Indice de la propia	Remesas	Realidad	Por 100
Cas. Remesas	578	98	3.
id. Guascañobaca	557	34	24.
id. Guascañobaca	668	333	18.
id. Guascañobaca	260	40	28.
id. Guascañobaca	238	74	36.
id. Guascañobaca	579	98	36.
id. Guascañobaca	422	74	22.
id. Guascañobaca	266	14	30.
id. Guascañobaca	393	66	28.
id. Guascañobaca	582	86	34.
id. Guascañobaca	644	304	34.
id. Guascañobaca	668	132	18.
id. Guascañobaca	55	5	32.
id. Guascañobaca	578	58	8.
id. Guascañobaca	642	76	36.
id. Guascañobaca	668	333	32.
id. Guascañobaca	591	300	36.
id. Guascañobaca	526	89	16.
id. Guascañobaca	526	89	16.
id. Guascañobaca	536	90	28.
id. Guascañobaca	526	89	16.
id. Guascañobaca	526	89	16.
id. Guascañobaca	699	74	25.
id. Guascañobaca	607	569	6.
id. Guascañobaca	677	87	4.
id. Guascañobaca	80	5	20.
id. Guascañobaca	89	34	32.
id. Guascañobaca	698	74	16.
	13015	7242	28

Indicacion de la prop. terrestre	Antes	Después	Antes	Después
Castro Cochuyano	138	74	16	
id. Lullacayana	230	39	4	
id. Lullacordiana	526	85	16	
id. Lullacortiana	521	22	20	
id. Pocha atezca	526	39	16	
id. Pocha auzteca	319	54	2	
id. La quibana	614	504	34	
id. Lagunagayana	479	81	14	
id. Lagunagayana	318	56	2	
id. Pocha crata	256	13	18	
id. Conchucayana	447	76		
id. Albasanayana	438	74	16	
id. Albasanayana	288	18	26	
id. Albasanayana	266	14	30	
id. Cochabamba	614	104	14	
id. Cochabamba	639	108	22	
id. Cochabamba	526	89	16	
id. Cochabamba	529	89	32	
id. Cochabamba	558	26	28	
id. Cochabamba	526	89	16	
id. Cochabamba	558	26	28	
id. Cochabamba	114	24	16	
id. Cochabamba	614	304	34	
id. Cochabamba	398	67	22	
id. Cochabamba	318	54	2	
id. Cochabamba	498	74	16	
id. Cochabamba	558	26	28	
id. Cochabamba	543	22	30	
id. Cochabamba	701	118	6	
id. Cochabamba	701	118	6	
id. Cochabamba	614	104	14	
id. Cochabamba	526	89	16	
id. Cochabamba	468	79	18	
id. Cochabamba	590	100	30	
id. Cochabamba	526	89	16	
id. Cochabamba	242	11	4	
	5000	510	32	

S. P. A. 1800		Suma de...	3088	540	23
Indice de la propiedad		Rentado...			32
Las...			318	54	7
Molino de Villaca...			71	12	2
id. de Villaca...			186	18	
id. de Villaca...			106	18	
Las de Zaramora...			338	24	28
id. de Zaramora...			532	30	33
id. de Zaramora...			564	25	32
id. de Zaramora...			422	71	21
id. de Zaramora...			526	39	16
id. de Zaramora...			387	39	26
id. de Zaramora...			365	22	2
id. de Zaramora...			513	22	14
id. de Zaramora...			404	132	6
id. de Zaramora...			492	23	22
id. de Zaramora...			233	13	12
id. de Zaramora...			509	26	12
id. de Zaramora...			120	20	14
id. de Zaramora...			509	26	12
id. de Zaramora...			49	7	12
id. de Zaramora...			70	11	30
id. de Zaramora...			27	1	20
id. de Zaramora...			70	11	30
id. de Zaramora...			192	32	22
id. de Zaramora...			70	11	30
id. de Zaramora...			132	25	28
id. de Zaramora...			70	11	30
id. de Zaramora...			52	8	23
id. de Zaramora...			170	11	30
id. de Zaramora...			70	11	30
id. de Zaramora...			129	21	32
id. de Zaramora...			24	4	2
id. de Zaramora...			36	3	12
id. de Zaramora...			070	11	30
id. de Zaramora...			152	25	28
id. de Zaramora...			314	304	34
id. de Zaramora...			419	70	2
id. de Zaramora...			447	76	
			4008	6817	23

Suma anterior

10083. 6847. 32.

Indy. de la prop.	Rama	Cuotal	
Ch. P. Anuladu	5209	5209	141
id Virginiastruca	319	54	81
id Virginiaaurata	384	65	10
id Virabilis	192	32	2207
id Zaticanagoma	326	89	16
id Zatica tibia	420	71	148
id Zatica gorilla	524	92	16
id Zaticachu	160	27	34
id Zaticajapona	255	43	12
id Zaticajavana	280	47	20
id Zaticabona	298	50	22
id Zaticabona	454	77	6
id Zaticajapona	482	81	32
id Zaticabona	319	54	8
id Zaticabona	255	43	12
id Zaticabona	142	24	4
id Zaticabona	302	51	32
id Zaticabona	378	62	22
id Zaticabona	240	40	26
id Zaticabona	281	47	26
id Zaticabona	354	57	32
id Zaticabona	125	21	8
id Zaticabona	523	92	30
id Zaticabona	543	92	30
id Zaticabona	398	67	22
id Zaticabona	350	59	36
id Zaticabona	378	62	22
id Zaticabona	340	40	26
id Zaticabona	398	67	22
id Zaticabona	160	27	34
id Zaticabona	309	51	32
id Zaticabona	378	62	22
id Zaticabona	487	81	26
id Zaticabona	350	59	36
id Zaticabona	160	27	34
id Zaticabona	106	18	
id Zaticabona	2230	372	4
id Zaticabona	54377	9281	22

Suma parcial de su original

(Produktuen) ZEAZTASUNAK

Azken gizaldiaren lenengo laurdenean, Ipazter'eko etxeak errenta lez dirutan geien artzen ebenak oneik ziran:

Zubieta . .	245 errial
Ormaetxea .	95 errial
Oriosolo . .	81 errial
Agirre . . .	75 errial
Dolaraga .	72 errial

Eta bakoitzak 66 errial Argin biak, Amillaga, Igartua eta Solarte aldekoak.

GARITAN

Garitan artzen eben agerpenetan, geiengoak bakoitzak iru anega agertzen eben. Eta orrenbeste artzen ebenak Aboitz, Arritola, Belaustegi, Erkiaga erdikoa, Iparragirre, Mendazona goi eta beko, Solarte Elexalde eta Uriarte goikua ziran.

ARTOA

Geien artzen ebana Zubieta zan. 8 anega. Ondoren 6 1/2 artzen zitun Urkixa'k. Gero bakoitzak sei anega beste oneik: Aboitz, Arritola, Barainkena, Batiz nagusi, Eguren goiko, Erkiaga beko, Kortazar, Mendazona, Natxiondo eta Uriarte nagusiak. Urrengo 5 1/2 naka, Igartua eta Solarte aldekok eta besteak ortik bera.

INDIARRA

Baseri askok anega bat artzen ebela.esaten eben eta beste askok anega erdi.

GAZTAIÑA

Gaztaiñarik geien Mendazona goikoak, Aboitz eta Uriarte goikoak artzen eben, bakoitzak bost anega. Zertutxa erdikoak .3 eta besteak bi edo gitxiago.

SAGARRA

Burdikadarik geien Zubieta etxeak artzen eban: 8. Gero Zatika goikoa zan urrengoa, 6 burdikadaz eta urrengo, besteak, iruna artzen ebela agertzen eben Agirre solarte, Artaleorrage, Beiti Aldeko, Garatea, Larrinaga beko, Mendazona, Nañoneko, Zabala, Zarrandona goiko eta beko eta Zertutzak.


IKATZA

Egur ikatza geien gertuten eben etxeak oneik ziran: Aboitz, Mendazona eta Uriarte goiko, bakoitzak launa burkada. Iruna adierazten eben Igartua, Madarieta eta Solarte goikua eta Arana'k.

TXAKOLIÑA

Txakoliñik geien, besteakandik alde andiagaz, Zubieta etxeak artzen eban: 90 kantara. Gero Beñakua'k 8 eta Beitia aldeko, Beitia goiko eta Ormaegi'k bakoitzak 6.

(Jakingarri oneik Gernika'ko Batzar Etxeko Artxibuetako paperetatik ataratakoak dira. 1823 urteko agerpenetatikj.



ERRI JAKINTZA

Aberatsa da Ipazter antxiñako siniste, oitura, burubide, sorginkeri, ipuin eta kontuckin.

Bertan geratu eta batu diran urratsak aberatsak izan dira eukal mitologi eta folklore jakintzarako.

Origaitik euren ikasketa eta ikerlan asko oitura onein bidez egin eta gure antxiñakoen bizitza ezagutzera eldu ziranak, sarri aitatuten dabe Ipazter euren ikasaldietako agerpenetan.

Danok dakigu gure zarrak alako Jainkosa antzeko sorgin bat gogoratzen ebela **Mari** izenagaz.

Mari ori izaten zan sorgiñen artean euskaldunak zeregiñik ugarien ezagutzen eutsena. Ipazter'en be biziten zan aldietan Mari ori, lengoen sinistetan, eta beste tokietan deitura ezbarðiñak emonarren, emen ba eukan bere izen berezia: Mari Labako.

Onek Balzola, Anboto, Gabaro eta beste tokietan bere «etxeak» eukazan lez, Ipazter'en Otoio eta Damazulo'n eukazan.

(Barandiaran, Obras Completas, 1-371)

Damazulo Adurria baserriaren mendian dagon koba zuloa da. Bere sarreran borda bat dago. Siniskera da denporaldi bat igarotera etorten zala Mari bertora.

(Barandiaran, Obras Completas, 11-396)

Damazulo berbera, izena bera, Mari'ren «etxea»ren tokia adierazten datorren deitura da, au da, Dama'ren zuloa.

Esaten dan lez, Ipazter'en, dama au, odei zuri baten irudian ikusten eben. Otoio mendia laiñoz beteta agertzen zanetan, lengo ipazterarrak bereala esaten ekien: Mari Labakok labakoa dauko da euria egingo dau laster.

IPUIÑAK

Erri kontuetan polita da eta erakusgarria Barandiaran'ek agertzen dauan ipuin bat. Lekeitio'ko Eustasio Arritola'k berari bialdua. *(Obras Completas, II, 250.)*

Guk, gaurko irakurleentzat zerbait erraztutearren, idazkera apurtxo bat aldatu edo orraztu egin dogu. Ara:

SOSUA, AZERIA ETA ERROTAKO TXAKURRA

Sosua ebillen Kurtxia'ko iturri-aldian bertan abixia eukalako.

Juan jakon azerixa eta esan eutson: Sosote, zer dok orren ale-

gre?

-Iru ume jaukazak, erantzun eutsan.

-Emoidak bat.

-Neuk emon? Ezin emoneizu.

-Bestela bustanagaz artia botako dautsut...

Emon eutson kuma bat.

Beste batean be olantxe, eta guztiak eroan eutsozan.

Txiuka negarrez ebillen sosua eta Agarre baserriko txakurrak diñotzo:

-Zer pasaten jak?

Sosua esan eutsan guztia, eta txakurrak orduan:

-A zorua! Botetako esan biar... Nai dotan guztia emoten baustak, neuk galduko juak azerixa.

Egiunia egin eben ba, sosua lortuteko, txakurrari beronek nai eban gatzatu gustia eta onek azerixa galtzeko.

Urrengo jai eguerdi-aurrian, baetorren Mari Txantatorrene'ko otzaran gatzatuarekin Kurtxia'ko zelaian bera.

Sosua ikusi ebanian, geratu zan Posuzarra'ren onduan, bidegalian, eta gero Marixa'ren aurretik asten da koxoka-koxoka.

Marixa'k ikusi ebanian, eratzi otzaria ta asten da sosua arrapetan.

Txorixak lantzian txirristadatxu bat egin-da, Agarre'ko etxealdera, beruntz.

Eta bide zatitxu bat egin ebaneko, iges eban sasira, bitartian begira eguan txakur zarrak nai eban gatzatua jaten ebala.

-Ibilli on pozik, eta azerixa jatorkanian, esaixok il nokela.

Bai laster ikusi be azerixak sosuaren poza, eta ba diñotso lenago lez:

-Sozote, zer dok orren alegre?

-Zer ixango juat! Agarre'ko txakur zarra il dokela!

-Eztok ixango egixa.

-Bai, egixa dok, an jagok eta.

-Un...! Zarra dok ori gero!

-Ez, ikusik, antxe jagok eta.

Lenengo urruntxutik eta inguka ebillan; baiña azkenez sinistu eban eta diño:

-A amaika bidar neu be erabili naxok larri ollotan da nebillela... baiña on musturra zikindu bear deusat beroneri be.

Eta beren gaiztakerixa eiten eguala, oratu eutsan txakurrak is-tarretik.

-A zelan dautzan, neuri deustalakuan -ziñuan azerixak -alboko ota koskorrari.

Obeto oratuteko itxi eutsan, eta juan zirian bata aurretik eta bestia atzetik.

ZATIKA'KO ABADEGAIA SALAMANCAN

Andra alargun batek abade izan gura eban semea eukan. Arren bai arren berak eleizgizon izan bear ebala ta bere guraria lortu eban Lekeitio ganeko Zatika gazteak. Estu ta lor andiz baiña bear eban dirua amak batzen eutsan ta Salamancara bialdu eben ikasketak egitera.

Ikastaro guztiak amaitu orduko il jakon Zatikari ama ta larri ibilten zan ostatuan ostatukoa ta dendetan erosten eban apurtxo ordainduteko.

Zapatari bati oiñetakoak adobatzea zorrean itxi bear izan eutsan. Zor au etzan gauzan andia, sei marai; baina artzekoduna zorrotraz egoan. Ilebeste osoa eukan zorrean ostatuan ta dirurik emongen ezpaeban ezeutsela geiago ez mairik ez ogirik emongo esan eutsenean, Zatika gaixoa aldi gaizto batek emonda, blaust!, lurre-ra zangino yausi zan. Kolera-aldia zan ain zuzen bere.

Ilda egoalakoan, illerira (kanposantura) eroan eben Zatika. Zapatariak au jakin ebanean illerrira yoan eta eskuan eztena ebala itz garratz onek esan ei ebazan:

-Niri zor daustazan sei maraiak emon arte iñok eztautso oni lurrik emongo.

Gau atantxe Diruetxean lapurreta andi bat egin eben. Lapurrak, osturiko dirua banatzeko, illerrira yo eben, an baketan itxiko ebezela-ta. Arek, ara-orduko gure ezagun biak an egozan: Zatika zerraldoan ta zapataria zokondoren baten, zelatean. Lapurrak euren amaseiko gorri ederrak piloan piloan imini ta ainbanatzen iñardula, amaseiko bat geratu zan, guztiak gura ebena. Batak asmalaria izan zalako, berari egokiola ziñoan; besteak, Diruetxean aurrerengo sartu zalako, berea zala.

Guztien buru egiten zanak:

Gizonak, esan eutsen, ortxe datzan gorpuari sur-ertza ebagi dagionarentzat izan daiteala amaseiko ondakin ori.

Zatika estudiantea, aun entzundakoan, -Purgatorioko arimak, balia zakidaz, esanda, zerraldotik jagi zan.

Euren altxorra (eskuartea) oso-osorik antxe itxita, igesi yoan ziran lapur guztiak.

Zapatariak estudiantea diru batzen ikusi ebanean, berak bere erdia bear ebala esan ta bizarrakaitik emon eragin eutsan. Sakel ta zarpak diru gorri ederrez bete ebezanean, estudianteak lagunari arek goiz edo berandu ara agertu bagarik etzerala egongo esan eutsan, ta euren buruak eguna zabalduarte antxe nunbait ezkuta-tea egoki izango zala gañeratuz.

Laster urreratu zan ara lengo lapur bat eta alde guztietara begira ibili ta barrura sartu bere egin zan. Zerraldo-ingurura oboen oboen eldu zanean ostenduta egoan zapatariak bere lagunak aspalditxoan eutsan zorra gomutaratuta -I -deadar egin eutsan- nire sei maraiak? Nire sei maraiak?

Lapurrak au entzueran izaturik arinari ta igesari emon eutsan ta amasa baten lagunakana elduta esan eutsen:

Purgatorio ta Inpernuko guztiak antxe edo dagoz, guk itxi dogun diru guztitik seina marai baiño eztabe izan-da.

Angoxe diruakaz egin zan Zatika gizon ta elizgizon. Zapatarriak bere denda-zuloa itxi ta Salamancan ezagutu eban zapatagin-tzarik ederreña egin eban.

(R.MAzkue «Euskalerrriaren Yakintza» 11-353).



ITXAS GAIAK

KAIA ETA ELEIZ-ATEAK

Uriak sortzean, uri batzutan itxasoratzen ziran ibai eta errekaen goraberetan, asarre asko sortu ziran, eskubide eta jaubetasunari buruz.

Ala Bilbo'ko ibaia zala ta Bilbo eta Portugalete artean.

Bardin Ondarroa eta Berriatua'ren artean.

Lekeitio'k be bere asarre eta erasoaldi gogorrak euki zitun Lea ibaian zear ibilteko askatasuna bitarteko zala. Ez bakarrik arrantzan, bai eta basoetako egurrak eta mendietako frutuak bertan erabilteko askatasunari buruz.

Amoroto, Gizaburuaga, Mendexa eta Ipazter alkarregaz batu edo alkartzen ziran orretan, Lekeitio'ren aurka, euren eskubideak zaindu nairik Lea ibaian.

Ez zan ori bakarrik.

Oiturazko zan baita kanpotik etorten ziran merkataritzako txalopak, bein orrelako kaian sartzen ziranean, txalupa ori «plan-txan» lagatea, ibai orretan zer ikusi euken erritxoak eta eleiz-ateak jakitun geratu eta ekarrezan gaikietan ardurarik ba euken, erosketarako eskubidea eukiten ebelako.

Ori zala ra, itxuraz beteten ez zalako, Eleiz-ateak eurentzako portua egokitu eben Errenderian, Arrupain auzoaren egalean.

Orrek asarre' ipini zitun ez bakarrik Lekeitio'ko erriagaz, bai Arrantzalien Kofradiagaz be, eleiz-ate orreitako gizonak ebiltzan txalupak ukatzen ziralako Kofradiak agintzen eban tokietan arraiña ataratera, euren eskubideari eutsi nairik.

Orretaz Astudillo Korrexidoreak gertu eban konponketarako erabide bat 1485 urtean. Baiña aitzaki txikia bear izaten zan asarrea biztu eta lengora joateko, eta azken baten Lekeitio'ko San Pedro izeneko arrantzalien Kofradiak, konponketa bat egin eban portua erabilten ebenen artean eta eleiz-ateetako bizilagunekaz.

(Gai onetaz zerbait idatzi eban Juan Irigoien'ek «Anales de la Ria Bilbaina» izenburuagazj.

IPAZTERTARRAK COLON'EGAZ

Ameriketara Cristobal Colon'ek egin eban lenengo osteran, jakiña da arek Palos'en lortu eta betetako itxasontzi bi eroan ebazala, ango itxastarrekin beteta.

Ordez, Juan de la Cosa'ren beste itxasontzi bat eroan eban, au kontratu edo itunpean. Itxasontzi au 130 tonelada ingurukoa zan eta gaiñeduna, «kubierta» duna.

Beraz Niña eta Pinta itxasontzietan, España'ko ego aldeko jendea sartu eta ibili zan. Baiña itxasontzi nausi edo buruztat eroan eben «Santa Maria» zalakoan, geienak euskaldunak zirala esaten da, Juan de la Cosa'rert ardurapean.

Bertako kontramaixu lez Lekeitio'ko Juan joan zan. Itxuraz «Juantxu», nai eta orduko paperetan, edo eurak irakurtean, batzuk «Txantxu» eta antzeroko izena irakurri.

Onegaz ibiltan zan Ipaztertar bat, Antxia'ko Domingo.

Dakigunez Haiti ugartean (islan) egozala, «Santa Maria» itxasontzia galdu egin zan aitzetara joan da.

Ango indiatarrak lenengotan ondo artu zituen, edo emengoak jakin eben angoak zurikeriz eurekanatzen.

«Santa Maria»ren ondatzea gertatu zanean, aren ol eta zatiekaz baliatuta, emengoak, beste osterata baterarte, toki sarratu eta gogortu bat (fuerte bat) egin eta jaso eben an eta bertan geratzea pentsatu eben.

Gero, itxuraz, bertakoak euren artean eztabaida, asarre eta bekaizkeri ta inbiri asko euki zituen eta euren artean asarretu be bai, eta bai ta ango jatorrei euren agindu eta eskari larregiekaz gogait eragin be. Orrek bertakoekaz asarre ta indarkeriak sortu zitun eta azken baten emengoak gitxitzen joatean, indar barik gelditu eta angoen mende geratu, orrela, eriotzak bitarte, azurrak bertan lagatera elduaz.

Onein artean aurkitu zan ipaztertar Juantxu ori be, geroago emen emon ziran gobemuaren laguntza eta pentsiñoetatik dakigunez.

(Pentsakera au agertzen dau F. Okamika'k bere «Hombres de Vizcaya» /iburuan).

Emon ziran laguntza eta pentsiñoetatik dakigunez, Txatxu edo Aitxatzu lekeitiarra izan zan kontramaixua. Eta beste Txomin bat, lekeitiarra, bere lagun. Eta Txomin ipaztertarra upagiña (barri-llerua) izan zan eta beragaz batera ibili zan Urtubia'ko Martin, orduan natxituarra, Ea Natxitu'ko auzo lez sartzen salako.

(Sevilla'ko Archivo G. de las Indias'etako agirietatik).

ZORITXARREKO «ISPASTER»

Ala deitu beardautsagu izen orretako itxasontzi bateri.

«Ispaster» izena eta Ogoño'ren aurretik igaro barik, eta orrela, sekula berari agurka txisturik jo barik ondoratu zan.

Istoria auxe da.

1942 urtean, Galizia'ko Puebla de Caramiñal'en, arrasteen ibilteko itxasontzi bi egin zituen: «Lekeitio» eta «Ispaster» izenekpak.

25 metro luze, 5,91 zabal eta 3,45 goi eukazan neurrietan, eta 112 toneladako. Egurrezkoak biak.

Kaskoak Galizia'n egin eta makiñak Pasaia'n sartzeko asmo-tan eta andik arrantzan erabilteko ustetan.

«Ispaster» amaitu zanean, Galizia'tik Gipuzkoa'rako erremolkeko gastuen laguntzarako, galiziar piñu olez bete eben, eta ala urten eban andik «Ruda» erremolkalariaren .atopian.

Urrengo egunean mendebala sortu zan itxasoan, eta ontzi bien artean eukezan txikotak eten eta alkar galdu.

San Vicente de la Barquera gaiñean zan, eta gabeko amarrak inguruan.

Alperrik «Ispaster» en eioazan iru lagunak eukezan su-ziri eta abar jaurti, gabaren illunean ez eben alkar billatu ez beste iñok ikusi.

Urrengo goizean «Ispaster» Ubiarco deitzen dan itxas er-tzean, aitz tartetan sartuta agertu zan, eta iñok laguntzarik emon ezinda, eguerdiko amaikak inguruan zatituta geratu.

Barruko itxas gizon bi bertan itto ziran eta patroia bizi geratu, olatuak joaldi baten aitzen gaiñera jaurti ebenean, aitz baten pun-tan sinistu be ez egiteko eran bizirik geratu zalako. 1943'ko Maiatzaren 8'an jazo zan.

Jesus Rivero Elordi zan itxasontzi bien jaube lez agertzén zana, donostiarra. Galdu zanaren «Ispaster» izeneko ordea, Zu-maián egin zan urrengo urtean.

(Gertaera onen barri Rafael Gonzalez Echegaray'ren «Naufragios en la Costa de Cantabria» liburuko 281 orrialdean.)

ARRANTZALE ZARRA ETA OTOIO

Otoio mendiak ba dauka bere arrizko biotzaren entzute eta oroitza arrantzalienen artean.

Ainbat arrantzale ito izan dira bere oiñetan.

Bein lekeitiar arrantzale bat, bestelako txalopetan ibilteko zarreri zana, bere aurrean ebillan amuko arrantzan.

Aize zantar bat asi zan. Eta baretzeko itxurarik ez.

Agurea estutu zan, eta keixu eta larri, erramutan boga ta boga etxerako bidean asi, baiña ezin aurrera egiterik lortu.


Azken baten, indargetuta, zearo aulduta eldu zan portura.

Etxera baiño len, amorruz beterik Otoiora'ko bidea artu eban.

Eldu zan bere gibelera eta arrantzarako erabillan kañubetia atara ta sartu eutsan Otoio'ri zitalki, esanez: Otoio, ba daukok odolik?

Eta Otoio'k erantzun ez.

Arrantzale zarrak, berari gertatua ikusi eta ziurtatu ondoren, Otoio'ren arrizko biotzaren esaera eta sinistea egiaztatu eban.



GIZONAK

JUAN AMIAX

Ipaster'en jaiozan. XVI garren gizaldiaren azkenetan.

Naparroa'ko Biana'n egon zan abade lez, bertako ogibideko abade edo benefiziadu antzera.

An egoala «Ramillete de Flores de Nuestra Señora de Codes de la villa de Viana» liburua idatzi eban.

Liburu ori 1 608 urtean argitaratu zan Iruña'n.

Biana'ko Andra Maria'ren kondaira egitean, Bizkaia'ko ainbat Andra Marien kondaira eta euren irudien zeaztasun eta jakingarri ugari agertu zitun.

Gaur liburu ori liburu bakan eta arraro lez gordeten da.

Amiax au izan zan Ziarrotza'ko Ama Birgiña bakartade edo eremu baten agertua zala esan eban lenengo idazlea.

JACINTO ARANA

Arana torrean jaijo zan.

Eleiz-gizona.

Inkisdore izan zan eta Zamora'ko gotzain.

Ori diñoie kronika zarrak.

Noiz jaijo zan ez da agertzen. Noiz il zan be ez ziur.

Orretan ez Labayru bere Istorian ez Delmas bere kroniketan, ez datoz batera.

Batzuk 1 730 eta 1 733 bitartean il zala. Baiña ba dirudi 1 738 urtea izan zala eriotz urtea.

Delmas'ek 1 725'n Zamora'ko gotzain zala esaten dau, baiña aurrekoaren eriotza ikusita, ba dira esaten dabenak 1727'ko Bagillean egin ebala gotzain lez bere sarrera Zamora'n.

Aurretik egoan Zamora'n inkisdore lez eta ango gotzaintegi (obispaduko) Arduradun eta Bikario Nagusi lez, eta bere aurretkoa il zanean, berbera aukeratu eben eleizalde aretako gotzain.

AITA AGUSTIN BASTERRETXE

1 700 garren urtean jaijo zan, Azilla'ren 22'an.

1761 urtean il, Azilla'ren 18'an, Lekeitio'ko Konpañiako Ikastetxeke nagusi zala.

Amasei urtegaz sartu zan jasuiten laguntaldean. Orduña'ko Ikastetxe'ko zuzendari izan zan urte batzutan eta geroago Lekei-

ti'o'ko Konpañiakua.

Sermolari on eta irakasle arduratsu.

Aita Basterretxea, bere sermolari denporetan konturatu zan, erriak bertsoen bidez artu eta irunsiteñ zitula gogotsuen irakatsirik nausi eta sakonenak.

Berak lan bi agertu zitun bertsoan: «Guisonaren acabuco lau gausac» eta «Anima penitente batén negarrac» izenez.

Baiña errian gaur be oraindik gogoratu eta abestuten diranak bere «Jesukristo gure Jaunaren Pasiñoia» dira.

Pasiño au, luzea izanarren, 61 estrofa edo bertsoaldi daukaz, errepika bategaz, buruz dakie lengo zar askok, oiturazko zalako batez be Aste Santuko funtsiñoietan osorik abestutea.

Alaz eta bere musikari buruz esan bearreko da ez dala bardiña erabilten erri askotan.

Lenengo bizkaieraz idatzi eta agertu zan Pasiño au; gero Aita Kardaberaz entzutetsuak gipuzkoerarako gertu eta Aita Galdos'ek berba asko garbitu eta orraztuta agertu eban.

Edozetara be Aita Galdos berberak esan eban, berak ogei ataraldi edo argitaratze gitxienez ezagutzen zitula beintzat Pasiño onenak. Or ikusten da euskaldun erriak gogo eta atsegiñez artu ebala lan ori.

Aita Galdos'ek 1 926 inguruan atara eban berea eta arrezkero be ainbat eleiz liburu eta literatut liburuetan agertu izan da lan ori.

Aita Santi Onaindia'k au diño berari buruz: «Gaurko egunean ere Gipuzkoa, Bizkaia, eta Napparroan, sarri aditu oi dira kantu erdigarri onen izki-doiñuak»

(Euskal Literatura, 1-231 orrialdean)

JAKINGARRIAK

GERTAERA ODOLTSU BAT

Antxiñakoen itsukeriak itzalak izaten ziran.

Orreitako bat, gorroto eta odol ugari bitarteko zala, Ipazter'en gertatu zan.

Kondaira idazleak ez diñoe zeatz noiz zan.

Labayru'k, bere Historia General de Bizkaia'ko IV garren liburuko 163 orrialdean diño 1 526 urteko jai baten gertatu zala.

Berak onela diño:

Denporaldi onetan gizon odol zale bat bizi zan, Yarza'ko Martin deitzen zana, borrokari eta lotsa bakoa.

Urte onetan, Ipazter'en, Mikel deunaren eleizako koroan, jai egun baten, bere taldeko lagun batzuk lagunduta, Juan Arrasate jostunaren aurka jarki zan, eleizkizun bat ospatuten zan artean.

Makillaka astindu ondoren, aiztu (kutxillo) bategaz eskumako iru atzamar ebagi eutsozan.

Eleizkizuna ospatzen egozan abadeak, zauriketa ori galerazoten asi ziranean, abadetako bat zauritu eban belaunean, eta beste abade batek erorian kurutzearen kirtenari kutxillokada bi edo iru emon eutsozan.

Gai onetaz Franzisko Perez legegizonak egin eban agirian esaten da Martin orrek legea austen ibilteko oiturea eukala eta zuzendu eziña zala.

Urte berbertain eriotzara epaitua izan zan, bai eta Arrasate'ri kalteak eta okerrak ordaintzera, eta Erregearen ganbararako irureun dukat urrezko ezarri eutsezan isuntzat (multatzat), bai eta legerako gaitasun eta eskubideak eta Lekeitio'ko buruzagitzako ardurea be kendu eutsezan.

Baiña eskutatu ondoren ez eben aurkitu, eta eriotzako zigorrik ez eban jazan.

Onetan esan bearreko da, aurrez, Lekeitio'ko eleizan, agintarien jarrilekoetan zein lenago jezarri bear zan gorabera eztabaidatsu baten, Adan de Yarza batek Lekeitio'ko alkatea il ebalu.

Gero onen semeak izan ei ziran Ipazter'en Juan Arrasate jostunari kutxilloa sartu eutsenak.

Edozetara be gertaera oneik, jauntxo eta agintari naikoen ikusi ezin eta garrazkeria agertzen dabe, eta XVI garren gizaldi inguruko giro zatar eta bekaizti bat erakutsi.

IPAZTER'EKO PERRETXIKUAK

Jakiña da perretxiku batzuk, leku batzutan, osasunketan erabilten dirala. Toki batzutan euren drogeagaz be baliatzen dirala jai zaratatsu eta bizigarriak egiteko, nai eta beste askotan estutasun eta eiots arriskueta sartu be.

Bizkaitar osagille batek, Agustin Zabala'k, bera Ipazter'en egon zanean ezagututako perretxikuei buruz lan bat idatzi eban. Zuhaitz (arbola) enborretan asten diran ardagai (agariku) ongo gogorrari buruz ain zuzen.

Au da, agin (alertze), piñu, intxaur, sarats, izai eta antzerako zuaitz moskorretan asten diranei buruz.

Bere esanetan orrelakoen artean ar eta emeak egoten dira, eta emea da bakarrik osasunketa eta ebakuntzetan (zirujian) erabilteko gai dana.

Zabala osalari orrek perretxikuak kimika eta bai botanika begiz aztertu zitun, eta ongo emea bera be iru sailletan sailkatuten eban, batez be andia edo ardaia ebakuntzak egiten diranean odola barrizuteko daukan gaitasunagaitik, eta zein leku eta errialdetan onena sortzen dan esatean, bere ustez, bera Ipazter'en osalari egon zanean erabili izan eban bertakoa, edozein beste errialdetan batzen zan onena beziñekoa ba zala autortu eban.

Ala diño Labayru kondaira idazleak, bere H.G. de B. liburutako VI-413 orr.).

IPAZTER. IKUSBIDE BAT

Edozein liburueta*irakurri leikena:

Ipazter, toki menditsua. Arri-nabarrezko (jaspe moreno) arriolak. Bai belardi ugari be.

Gari, arto, arbi (nabu), sagar, liñu, baba eta beste janariak arzen dira. Bai txakolin apur bat be.

Gernika'ko Batzarretan 17 garren deia egiten dautse.

UDALETXEA


Txikia da, baiña egokia.

Bere aurreko orman, ezaugarri bat emoten dau: Casa Consistorial de Ispaster, destinada para hospital militar de Voluntarios de Vizcaya en 1813, quemada por esta causa por el ejército francés y reedificada en 1817».

ERRIKO KARTZELA

Aterpedun inguru polita dauka kanpotik Parrokiak.

Eta atze aldean, eleizaren ormen barruan, erriko kartzela egon zan luzaro. Gaur abadeak paella ugari bat egiteko, bere jaubetasuneko dan burdiñezko paellera andi bat gordeten dau bertan, inguruz 5,20 metro daukazana. Berberak egin eban bertan 250 lagunentzako paella eder bat.



PARROKIKO JAIETARAKO KURUTZEA

Jai andietan erabilten dan kurutze eder bat dago parrokian. Zidarrez gaiñeztu eta apaindua. bederatzi libra eta ontzi bi puxua.

Ba dirudi parroki onetarako béreziki egiña dala, bere pitxi eta irudien artean parrokiko zaindari dan Mikel deunaren zillu antze-koak daukazalako.

Kurutze ori berrogei ta bi urtetan ezin billatuta ibili ziran bertako abade, sakristau eta abar.

Ostu ebelakoan, diabrukeri bat bitarteko zala.

Inguru eta zurkulo guztiak arakatu, aztertu, ikusi, berrikusi eta ezin aurkitu. Eta 42 urte orrela igaro ondoren, ara nun orain dala iri urte, 1984'ko Bariku Santu egunean, bat batera agertu.

Miraria? Sorginkeria?

Ze gertatu zan?

Ustez au:

Norbaitek, kurutza baliotsua dalako, esku artetik eta begi aurretik kendu eban eta sakristiako arasako erdi-erdiko toki andian, kandelera eta beste gauza luzeak gordeten diran tokian, goi al-dian, zapalik josita edo ala egoteko tokia egin eutsan. Orrela atearen gaiñeak eta arasaren osotasunak daukan bitartean, atea zabalduarren ez ikusteko eran.

Eta antxe egon da 42 urtetan, iñor gogoratzen ez zala eta ate a milla bidar zabalduarren, pentsatu ez goiko tarte aretan kurutzea egongo zanik.

Eta 1984'ko Bariku Santu egunean, Eguen santuz ipinten dan monumentua kentzen eben andrazkoak kandelera euren tokietan gordeten ebiltzala, ara nun jausten jakoen Kurutzea, andrak eta geiagok be, miraria zalakoan, Aitarenka geratzen zirala.

Zeiñek esan ango batzuei Kurutzea eta Bariku Santu eguna ain zuzen be alkartuta, gertaera ori mirari ez zanik?

Dana dala, guk gauzak onelaxe gertatu zirala esaten dogu, gure aldetik ezer geitu edo kendu barik.

Bizkai'ko Eleiz Museoan gordeten da.

INSIGNIS PIÑUAREN AMUMA

Jakiña da Euskalerrira «insignis» piñuaren landarea, Adan de Yartzatarrak ekarria dala.

Eta Yartzatarrak, euren Zubieta jauregiaren egal baten sartu eben, eta antxe dago, lodi-lodi, gaur Euskalerriko insignis piñuen amuma deitzen dautsena.

ERRIKO ARTXIBOA

Jakiña da erri askotan, lengo denporetan, eleizetan gordeten zirala erriko liburu eta kontuak. Ala ikusten da Ipazter'en be.



Eleiza barruko orman, Ebangelio aldeko orma nagusian, gaurko kutxa sendo edo «caja-fuerte»en ate antzerako txiki bat dago, eleiztar guztiak ikusteko eran eta bertan esaera au: «Archivo de la Anteiglesia de Jspaster».

ARROPAIN ETA GARDATA'KO TABERNAK ETA LEKEITIARRAK

Txakoliña bitarteko, Lekeitio eta Ipazter'ek euki zituen eztabaida luzeak.

Ardauari, erriko mesedetarako, edozegaitik ipinten eutsen petxa, inpostua. Txakoliña ortik kanpora, libre geratzen zan.

Ipaztertarrak etxe barri bat egin nai izan eben Arropain'en, euren jaubetasuneko lurraldearen mugan, txakoliña eta beste gauzak saltzeko.

Lekeitiarrak euren asarrea agertu eben orren aurka, baiña goitik erabagi bat emon zan esanez, bizkaitarrak (esan nairik eleizateko bizilagunak) aske zirala txakoliña bakoitzaren lurraldean nai eben eran saldu edo erosteko, eta lekeitiarrak ezin galeraso izan eben Arropain'en Ipazter'ek orretarako etxea egitea.

1 659 urtean zan ori.

Ba dirudi etxe ori partikularren batzuk egin edo eroaten ebela eta oneik euki zituela Lekeitio'gaz lotueren batzuk eta Lekeitio'k ez eutsela itxi nai izan bertan ardaurik saltzen.

1 741 urtean Ipazter'eko udalak erosi eban etxe ori, erriko taberna lez ipinteko asmoz. Lekeitio'k aitzaki polit bat ipinten eban aurka egiteko. Taberna ori erritik kanpoan, urrun egoala, eta naste etá asarreen batzuk sortuta gaitz izango zala orrelako gertaeretan bakeak egitea edo asarreak baretzea.

Ori aitzaki bat baiño ez zan, ordukoak esaten ebenez, Arropain'en Lekeitio'n baiño ardau obeago saltzen zalako eta lekeitiarren txakoliña baiño merkeago.

Lekeitiarrak gora jo eben eta 1751 urtean taberna ori sarra-tzea lortu, edo beintzat Arropain'en barik beste tokien batera aldatzera beartu, erriko zaindariak tabernako gorabera erraz zain-tzeko eran.

Erabagi ori agertu zanean, Ipazter'ek Gardata'ra aldatu eban taberna ori eta oraindik be Lekeitio aldakuntza orren aurka agertu zan.

Dirudienez lenengo erabagian esaten zan Arropain'en edozei-ñeri saldu eikezala bai edari ta bai okelakiak be.

Ori ikusita Lekeitio'k bere taberna bat zabaldu eban Arropain'en aurrean. Baiña ipaztertarena irabaziak egiten iñarduan denpo-ran, lekeitiarrena buruz bera joian, galdu ta galdu. Era orretan ezin jarraituta, lekeitiarrak itxi bear izan eben euren, eta indarrez joku-tu eben ipaztertarenaren aurka, bertara eroatera joaten ziran le-

keitiarrei zortzi errialeko isuna (multa) eta lau eguneko kartzela ezarriaz.

Konpondu naiak agertu ziran, baiña alperrik.

Lekeitio gertu egoan Ipazter'eri irabazten ebana ordaintzeko, etxea sarratzearen orde.

Barriro be gora jo eben eta 1 780 urtean agertu zan erabagia lekeitiarren gurarien aldeko zan, esaten ebalako erritik kanpora, bakartadean, ez ipinteko ezelako tabernarik egon eikezan asarre eta nasteak ixildu eraztearren, eta Lekeitio'k bere taberna ipini nai ba eban, erri barruan zabaltzeko.

Izpaster'arrak Gardata'n saltzen jarraitu eben. Mingarri zan ori Lekeitio'rentzat, ikusi eziñeko, eta aurka egitearren, Ipazter'eko baserrietatik ekarri eta Lekeitio'n il eta saltzen zituen txalei, petxa ipinten asi ziran, bai eta ipazter'arrak Lekeitio'n erosten eben orioari be.

Guztiori bitarteko egonarren, Ipazter'ek errematera atara eban Arropain'go taberna 1843 urtean, barriro be Lekeitio'ren asarrez. Eta orduan Lekeitio'ko udalak erabagi au artu eban: lekeitiarrei taberna aretara klaretea erosi eta edatera joatea galerazotea, eta joaten zirane Lekeitio'ko erriak eukan osagille, ebakilari (zirujanu) eta beste mesedeak ukatzea.

(«La Villa de Lequeitio». F. Ocamica y Goitiso/o, 213-214 orria/detan).

IDI-KONTRABANDO A

Lekeitiarrak eta ipazter'arrak euren artean eukan asarraldia-gaitik ete zan?

Ondarroa'ko Udaletxean dagozan paperen artean, salakuntza (denuntzia) bat billatzen da. 1 744 urtekoa da. Bertan ikusten denez Ipazter'ar batek (izengoitiz «German» zanak) Itziar'ko bateri saldu eutsazan bederatzi idi, eta eskütuan igaroteko asmotan ebillan. Salakuntza ori eldu zanean, Ondarroa'ko alkateak bertako zaindariari agindu eutsan bidera urten eta zaindu eta al ba eban baserriar ori baituteko.

Onk biaramonean gizon bi preso artu zitun, bata «German» ori, izen jatorrez Ipazter'ko Juan Aboitiz eta bestea itziar'arra. Iraila'ren 1 9'an zan gertaera ori.

Idiak Asterri'ka'ko baserrietan eskutauta eukezan. Bat Goi-koetxe baserrian eta beste zortzi Egiguren baserrian.

Gorabera oneri buruzko karta batzuk dagoz Ondarroa'ko Udal-artxiboan.

ARBOLADIAK

Bizkaia'n 1804 urtean egin zan arboladien zentzoan, danetara arboladi oneik agertu ziran:

Aritza	3.501	arboladi
Gaztaiña	576	»
Artea	40	»
Txara	25	»
Intxaurra	14	»
Pagoa	13	»
Gurbia	2	»
Leizarra	1	»

Guztira 4.172

Euretatik Ipaster'en egozanak:

Ariztiak	1
Gaztañadiak	2
Artadiak	2
Pagadiak	1
Intxaurdiak	1

Bizkaia'n 1880-1890 bitartean gaixoa sartu zan gaztañadietan eta arrezkero beratu da mota au gure lurraldean.



KANTUJATORRAK

Ua-ua txoa

Ua ua txoa lo ta lo,
zuk orain eta nik gero,
biok batera lo egiteko
eguna lar bero dago.
Lo.

Aleure seme polit au
azita ba neuko,
aitari tabernatik
ardaua ekarteko,
amari esantxoak
zeatz egiteko.
Lo.

(Azkue'k ez dau esaten zeñegandik batu eban. Bai Izpazter'en batu eballa) «Cancionero Vasco» 1-253. (Seaska abestiak).

Bakarrik aurkitzen naiz

I - Bakarrik aurkitzen naiz
neure anparuan,
neure konpesiñoa
egitea nua.

II.- Aita, akusatzen naz
neu lenengoagaz,
guere Jaungoiko ona
amadu ezagaz.

III.- Aita, akusatzen naz
neu bigarreanean,
egin dot juramentu
guzurren ganean.

IV - Joaten naz elizara
Mezea entzuten,
tenplura joaten naz
galaiak ikusten.

V.- Agur, aita praillea
egin dau neureak,
izio kandlea,
gertu bai andrea.

VI.- Praile santua dago
guztia arriturik,
dama ikusten zuela
belaunetan illik.

VII.- Ezpan korai ederrak
ondo lur eginik,
negi zuri ederrak,
gutziz ezaindurik.

(Azkue'k d/no kantu au Ispazter'eko Marí Juana Urteaga'gandik batu eballa. Andre zartxo bat i/ten dagoa/a bere pekatuak kontatzen agertzen dala. Ez eballa jaso nai izan autortza guztia, luze eta gatz bakua zalako. Ez dakila autortzak gertaeren bat agertzen dauan edo ta iruditakoa dan). «Cancionero Vasco» 1-484-485 orrialdetan.

Sakramentuak zazpi dira

Sakramentuak zazpi dira
ta oraintxe nago kontatzen,
neure kristauak egon zakidaz
atentziñoiaz entzuten.

Lendabiziko sakramentua
bataiatzen gareanean,
erejiatik sartu oi gara
Jaungoikoaren legean.

**(Azkue'k Maria Juana Urteaga'gandik batua). «Cancionero Vasco»
11-794 orrialdean.**

Euntegietan daukat

Euntegietan daukat
miesa telea,
nor izango ete da
arentzat eulea?
Errege don Felipen
alaba lindea,
Nor izango ete da
arentzako yoslea?
Andra Madalena
apostoladea.

**(Azkue'k Maria Juana Urteaga'gandik batua). «Cancionero Vasco»
11-970-971 orria/detan.**

Urteizu jendea...

Urteizu jendea,
gente umildea,
guztiok adora daigun
zeruko Erregea

(Bakarrak)

1.- Umilde jo zituzan
Josepek ateak,
ez egutsen erantzun
zalako pobrea.

2- Kodaiña biurtu diraz
olezko ateak,
ereje biurtu diraz
orain ango jendeak.

3.- Zerutik aingeruak
pastoreak bere
belauniko jarririk
adoratzen dabe.

**(Azkue'k Izpaster'eko Dionisio Gabio'a'gandik batua. Gabon zar
gabean aterik ate abestuten zala, diño. Bakarreko kantu bakoitzar-
ren atzetik, danak errepikatzen dabe: Urteizu jendea...). «Cancio-
nero Vasco» 11-1.147-1-148 orrialdetan.**

IRU MUTILLEK IPAZTER'EN

Txanton Piperri emen dago
limosna on bat ba lego,
kantau bear dot,
baldin al ba dot,
nere sabelen gosiaz
erruki bedi jendia,

Iru mutillek Ipazter'en
apostu bat egin eben,
jango ebela,
goizetik gabera
amar erraldeko txala,
Txanton laugarrentzat zala.

Pozarren nengoan zororik
jateko laurenbat osorik
nere kontuak
beti olanguak,
joan ziren pozak pozura
amesak oi diran modura.

Ez dago errotan arririk
nere agiña lakorik,
agin bakotxak
txikitxuko leuke
ogji aundi bat osorik,
baleuko bigun bigunik.

Zabala dot nik sabela
bardin bardiña gibela,
este bakotxak
kabiduko leuke
ganbela bete okela,
baiña noiz izango ete da.

Besegu denpora danean
batzen ditudaz kalean
ogei txitxarro
eta geiago
eta guztiak gabian
sartzen dodaz sabelian

Orduan ondo nengoan
gau erdi osterañoan,
andik goizera
nere sabela
beti egoan gur gur, gur gur,
bartko afariak agur.

PASIÑOIA

Agustin Basterretxea jesuitak egiña da.

- 1.- Jesukristori kendu ezkerro
pekatuagaz bizitza,
baldin ez ba dot negar egiten
arrizkoa dot biotza.
Guztiok lagun
kantatu daigun
bere penazko eriotza.
- 2.- Mundua baiño askoz lenago
señalauriko eguna
eldu izan zan obretarako
gizonaren osasuna.
Argia bera,
alde batera
bestetik egun illuna.
- 3.- Eguen santu afal ondoan,
bere lagunak zitula
Jesuse'k iru diszipuluai
berba egin eutsen onela:
triste nago ta
lo ori bota
egizue emen gaubela.
- 4.-Getsemaniko Ortu santuan
auspez lurrean jarririk,
esketan eutsan librau eiala
Aitari Kaliza atarik;
Jesus penatzen
odolez urtzen,
eta ez dot nik negarrik?
- 5.- Izerdi otza arpegian da
biotza penen artean,
triste arimea gorputza larri
agoliñako trantzean,
baiñan alan bere
egoan firme
Aitaren borondatean.
- 6.-Juduak Judas lagun arturik
etorri ziran itantzen,
Nazarenua deritxon Jesus
emen ete da aurkitzen?
Judas orduan
bake moduan,
dua musua emoten.
- 7.- Zeinbat direan Judasen legez
Kristoren adiskideak,
Kanpoti laztan barruti saldu
Ausirik bere legeak?
Kristiñau faltso
Arima gexto
Pekatarai traidoreak!
- 8.- Erantzun eban Jesus maiteak
Zeiñen billa zatoze ona?
Ara emen dago ezta besterik
Gura dozuen gizona:
Joateko eztoz nik
soka bearrik
Ez eldu lagunok gana.
- 9.- Eskuetatik lotu izan eben
guztion libertadea.
Zegaiti au zan geure onean •
Jaunaren borondatea,
Urratuteko
Ainbat urteko
Pekatuaren katea.
- 10.- Diszipuluak euren Maisua
ebenean ala ikusi
bakar bakarrik bera itxita
joan zirean igesi:
Pedro etorren
bere ondoren,
baña au bere urruti.

1 1.- Daroe bada Jerusalengo
Sazerdoteen aurrera,
Diszipuluen ganean eta
Dotriñan kontu artzera:
Kaifas gextoa
Aurrerengua
Asten jako itantzera.

12- Eztot nik diño Redentoreak
predikatu ezkutuan,
agirian zan nire dotriña
Sinagoga ta Tenpluan:
Ez niri itandu
Asko dituzu
Entzun nabenak munduan.

13 - Erantzuna aitu eban ezkeru
Soldadu batek bertati
gora daroa bere besoa
eta dirautso Jaunari:
Ikasi daizun
Zelan erantzun
Barriz Pontifizeari.

14 - Esan eta egin emoten deutso
bere arpegi ederrean
belarriondoko andi bat, zeñek
ezarri eban lurrean:
Eta Zeruak
dagoz lotuak
Au ikusten dabenean?

15 - Nozko dirade, Aita Eternua,
tximistak eta arraioak
ez erretako an berbati
esku ain sakrilegoak?
Aingeru ostea
eldu zaitea
Non dituzuez egoak?

16- Baldin deungaro berba egin ba dot
Errazoia emon egizu
baiña ezpadot, diño Jesusek,
ezetan bere erratu,
Zegaiti arren,
berba egin arren
Onela tratetan nozu?

1 7.- Indazu Jesus biotzekoa
Zeure sufrimentu ori,
jakin dagidan zelan penetan
emongo dodan arpegi
parkatuagaz
biotz osoaz
etsairik andienari.

18 - Damu dot Jauna biotz guztitik
zeu ofenditu izana,
Ez ez geiago pekatuarian
Neure Jaungoiko laztana,
Lar da kulparik
betoz agaitik
Pena orreik niregana.

19.- Sua egoan eskatzen ta
Pedro su atan berotzen,
Zerren biotzak amodioa ta
otz asko eutsan sentitzen
Su orren keak
Begi bereak
Negarrez bete zituen.

20 - Zerren ollarrak ez eban emon
birritan bere soñua
non iru bider ukatu eban
San Pedrok bere Maisua:
Ezta besterik
Okasiñorik
Ateraten dan pagua.

21.- Kaifasek barriz itantzen deutso
egiñik juramentua
Esan eidazu, Jesus bazara
Mesias prometidua
Alan ezpada
Zetako izan da
Engañatea mundua?

22.- Ondo ekian Jesusen nora
joan konfesiñoia
topetan eban kondenetako
Kaifasek okasiñoia
Eta arekin
gura eutsan egin
ilteko akusaziñoia.

23.- Alan be baietz entzuten dau
Aitari begiraturik
Baita Kaifasek bere deadar
soñekoak urraturik
Blasfemuena
Da onen pena
la dago kasua egiñik.

24.-Jagiten dira konziliotik
Ta artuten dabe bidea
Amargurara, non Pilatosek
Edukan bere etxea
zan Erromako
denpora atako
judeuen Presidentea.

25 - Juezak diño emongo badot
Gizon au eriotzara
ekarri egizuz kausa justuak;
Eta ezpadira, zetara
Narabilzue,
Eroaizue
Or Herodesen aurrera.

26.- Aita Eternua jakituria
Dauko munduak zorotzat,
Agaiti diño Errege orri
Jantzi tunika zuri bat:
Ezpabe nola
Zeruko estola
Erosiko zan guretzat.

27.- Esan eutsien Pilatoseri
Juduen Sazerdoteak,
Uste al dozu ez doguzala
Guk bere geure legeak?
Dau Blasfemadu,
Merezi ditu
Eriotza ta azoteak.

28 - Onek esan dau, izanik arotz
Pobretxo baten Semea
dala Jainkoaren Semea,
Judeako Erregea:
Ilten ezpozu
ezara ez zu
Zesarren, adiskidea.

29 - Gura eukean juezak Jesus
Eriotzatik libradu,
Zegaiti bere inozentzia
Ondo eban ezagutu
baiña juduak
dagozitsuak,
ez eutsien permitidu.

30.- Eriotza bat eginda, diño
dago Barrabas kartzelan
Nor nai dozue, Nazarenu
edo a librau dagidan?
Da oiturea
Bat libretea
Zuen Pasko egunean.

31.- Osta aotik atera eban
asi zirean deadarrez:
Librau egizu Barrabas; baiña
Jesus Nazarenue ez:
Orrek bear dau
Biziro penau
Abe batean dolerez.

32.- Ostera itantzen dau Pilatosek:
Baiña zer kausa emon dau?
Israeleko Errege bada,
Esatea da pekatu?
Areik deadar
Errege Zesar,
Ori Kurutzean iminzu.

33.- Justiziako lege guztiak
itxirik alde batera
Salbadorea kondenatu dau
gogor azoteetara:
Zeru altuak
Zer dekretuak
Datoz ortikan lurrera.

34.- Jainkoa bera, zeñek dadukan
mundua loraz jantzirik,
kortesi baga bere erropak
Tunikaraiño erantzirik
narru gorrian
egun argian
itxi eban lotsaturik.

35 - Nondik zarie gaba ta odeiak
illuntasuna non zara,
zelan zatoz Birjiñearen
Seme eder au estaltzera?
Ola eguzkia
Zeure argia
bialdu egizu atzera.

36 - Bost milla azote eta geiago
loturik kolumna baten
azi zirean iru borrreru
bere espaldetan emoten:
Ibai bat zelan
Odola alan
Asi ziran zan jausiten.

37.- Arriak eta Salbadoreak
biak alkar zirudien
zegaiti esan onen aoti
sentimenturik entzuten:
Marmolak eurak
golpe kruelak
dituenean artuten.

38.- Pillaretikan biziro Jauna
soldaduak askaturik
joakoz arin adoratera
burlaz Errege egiñik:
Bere koroa
Arantzazkoa
Buruan estu josirik.

39 - Mantu santarra soñean eta
kañabera bat eskuan:
Onelan Jesus tratetan eben
Pekataria munduan,
mundua bera
Redimietara
Jauna etorren orduan.

40.- Jesus onela ikusi eta
Pilatos errukiturik,
diño barriz: nik eztot aurkitzen
gizon onegan errurik;
Il egizue
Nai badozue
Erroman ezta legerik.

41.- Areik deadar: Jauna dalako
Pilatos, bildur bazara,
Datorrela arin orren odola
geure arimen ganera:
Eztau ardura
Geure kontura
Kondena egizu kurutzera.

42. Juez gextoak Sazerdoteen
esana egiteagaitik,
publiketan dau sententzia bat,
ez iñok okerragorik,
Eta gura dau
Burua librau
Jainkoaren odoletik.

43.- Alper alperrik Presidentea
garbitzen dozak eskuak,
juez justotzat eduki azan
hipokrita ori munduak:
loituta ago;
baiña geiago
I baño bere juduak.

44- Kurutze baten mundu guztiko
pekatuak zituzala
abiatu zan kalbariora
Jesus lapur bat bezela:
Artu Kurutzea
Au da bidea,
Galduko gara bestela.

45 - Salbadorea pausu bat bere
ezin emonik aurrera
Kurutze astunak azpiraturik
benzidu eban lurrera.
O pekatua
zeure pixua
Karga guztia zu zara.

46.- Ezin bakarrik eroan eben
zalako guztiz astuna,
eta orregaiti emon eutsien
Zirineoa laguna:
ditzazko gizon
Zara zu Simon
Nork leukan zure eguna!

47.- Bide onetan joeanean
Kalbarioko mendira,
bere Semea kontenpletako
Ama egoan begira:
An dira penak
An tormentuak
martirioak an dira.

48.- Ama Birjiña afligidea
itxi egizuz begiak,
estaldu zaitte, ain baga bere
asko daroa Semiak
tormenturikan;
Bat bere itzikian
ezteutsu itxiko negarrak.

49 - Bialtzen dituz Amak begiak
Semearen ikustera;
baiña biotzak sufridu ezinda
biurtzen dira atzera:
Dagoz agaiti
begietati
biotzak berba egitera.

50 - Semearenak esaten deutso
badakizu Ama maitea
asko sentitzen badozu bere
onelan ni ikustea:
Bestelan ezin
Zeruarekin
egingo dala bakea.

51.- Neure Aitarene borondatean
Zeurea beti daukazu
aren esanak naroa: Agur
Bendiziñoia indazu;
Neure ordeaz
Pekatariaz
kontuak zeuk edukazu.

52 - Amak diñotso: Zoaz neure Jesus
iltera ordu onean
baiñan zelan ni itxi nai nozu
bakartade ain trisitean?
O, zelanbait nik,
eta ondo pozik
jarraituteko (?) neukean.

53.- Salbadoreak onelan penaz
egiñik bide erdia,
Veronikaren karidadeak
kendu eutsan izerdia:
Obra onen pagu
Jaunak isten du
Pinturan bere arpegia.

54.- Joazan bada bera laguntzen
jerusalengo Alabak,
penaren andiz negietati
urturik euren biotzak;
eta eureka
biurturik Jauna,
Dio: Ay emakumeak!

55.- Arbola eze au erre badau
pekatuaren su garrak,
zelan eztituz abrasaduko
su orrek egur igarrak?
Ez niri negar,
Eztot nik bear,
pekatuari negarrak.

56.- Eldu ziren Kalbariora,
egozan prest borroruak
Mundu guztiko Egilleari
josteko oiñak ta eskuak,
Ikusi eian,
Bigarren Adan,
Arbola atan munduak.

57 - Nok ditu esku ta oin orreitan
burdiñeagaz idigi
gorroto edo amodioak
odolezko lau iturri?
Bularretikan
ate egiñikan
amodioa da agiri.

58 - Baltzez jantzirik ezkutetan dau
Zeruak bere arpegia,
lotseagaítik gelditzen dala
gorriturik argia,
gau illunean
egoanean
altuena eguzkia.

59.- Austen dirade arriak, zelan
dagoz biotzak osorik
Kurutze baten doloz ilten
geure bizitza ikusirik?
Pekatariak
gora begiak
negar iturri egiñik.

60 - Gogoti negar egingo deusut
jarririk zeure oiñetan,
neure Jaun ona zaitudalako
imiñi Krutze orretan:
Daukat damua
Zu ofendidua
Gauza guztien ganean.

61.- Izanagaiti, Jesus maitea,
neure pekatua andia,
Preziosua da zeure odola,
Au dakidala balia:
Piedadea
I Meure Jabea
Jauna miseriordia.

Errepika:

***Damu dot Jauna Biotz guztitik
zu ofendidu izana, ez geiago
pekaturikan neure Jaungoiko laztana
ezer ku/parik betor zeuganik,
pena oriek niregana.***

***Oarra: Basterretxea au Ipazter'tarra zan. Bertso oneik lenengo
bizkaieraz egin, gero gipuzkeraz be agertu ziran eta ogetak bidar ar-
gitaratuak dira. 1700 urtean jaio zan.***



LEKEITIO REN MUGAK BERTSOTAN

Amalau eundakako lenengo urtietan
Maria de Haro, gure andrandia
ez izenez «Ona», ontzat emon eban
Lekittar erri berri agirian
lurralde aundi, zabaltzen zana,
Ondarru ingurutik, laraiño iya.

Sekulako eztabaidak
sarritan egoten ziran,
estalpetuta elizateak
antxiñako Bizkai foruan,
beste aldera gure erria
andere eurenen izkuntzean.

Baiña ez eben euki kontuan
alboko elizate, erri auzoak
emoniko jabetasuna
gure lurralde gañean.

Olan ba gutzat laburtu zan
beren asierako zabalera,
gaurko mugak txikitu diraz
euren neurri txatxarrean.

Itxasoagaz lurra bat egiten danian
arritsua aspildu oratunian
geldittuten dira arri laxoak
emendik asi ta beste aldera.
Itxas aldia izan bear zana
Ondarruko aldetik iya la'ra,
bakarrik artzen dau gaur egunian
Isuntza zubitik Otoyon ertzera.

Eta Ipazter ingurutara noraiño elduten diran Lekeitio'ren jau-
betasunak zeaztuaz, onela diño:

Gure portua ta Amandarri,
geruago Pulpittua,
urrengo gure Kabaua,
da aratzatxuago Zubia,
apur bat arago Lezeta
ta Anzorizen lur muturra,
azkanen Estaopia:
amaitu dira mugapeak.

Onek geratzen jaku oraintzu
Lekittioko barruan,
baiña iñoiz geiago
areago izan dira.
Ori, antxiña-antxiñatik
iya galdu dogun kontua.

(Okamika: «Lekeitio nire jaiok-erria. Lekeitio mi pueblo natal»).





**BASERRI ETXEAK
ETA EUREN AUZOAK GAUR**

BASERRI ETXEAK


ETA EUREN AUZOAK GAUR

<u>Izena</u>	<u>Auzoa</u>
1.-ABOITIZ ETXEBARRI	Mendazona
2.-ABOITIZ NAGUSIA	Mendazona
3.-ADURRIAGA	Solarte
4.-AGARRE	Kurutziaga
5.- AGARRE (Aguirre Solarte)	Solarte
6.-AGIRRE ESKALANTE (Alagarre)	Gardata
7.-AIXE EDER	Soloaren
8.-AIXE ERROTA	Soloaren
9.- ALDEKO BEKO (Kortazar Aldekoa)	Kortazar
10.- AMILLAGA	Arropain
11.- ANSORENA	Barainka
12.- ARANA (Gardata Aranekoa)	Gardata
13.-ARANATORRE	Larrinaga
14.-ARBIONDO	Kortazar
15.-ARGIN ERROTA	Mendazona
16.-ARRITOLA	Mendazona
17.-ARRIZUBIETA	Barainka
18.- ARTEAGAKUA	Solarte
19.- ARTELEORRAGA	Mendazona
20.- ARTZARAN - ARTZAKO	Artikas
21.- ARTZAIL BEASKOA	Artikas
22.-ARTZAIL ERDIKOA	Artikas
23.- ARTZAIL GOIKOA	Artikas
24.- ATX ATZEKOA	Gallate
25.- ATX AURREKOA (Atxaurre)	Gallate
26.- ATXABAL	Soloarte
27.- AXPE AURREKO	Kortazar
28.- AXPE ERDIKO	Kortazar
29.- AXPE ETXEBARRI (Gartxou)	Kortazar
30.- AXPE GILINTXARAN (Basokoetxe)	Kortazar
31.- AXPE GILIZ (Txutxuneko)	Kortazar
32.- AXPE KALZADA	Kortazar
33.- BALZOLA (Jaunene)	Barainka
BALZOLA (Jaunene Andresena)	Barainka
34.- BARAINJKENA	Barainka
35.- BARRENENGOA (Zertutxa)	Gallate

BASOKOETXE (Ikus Axpe Gilintxaran)	
36.- BATIZ NAGUSIA	Artikas
37.- BATIZ BEKOA (Ateun)	Artikas
38.- BEITXI	Gardata
39.- BEITXI BEKO	Gardata
40.- BEITXI GOIKO (Gartzaianekua)	Gardata
41.- BELAUSTEGI	Barainka
42.- BENGOTXEA	Barainka
43.- BENTA ZARRA	Arropain
44.- BEÑA	Gardata
45.- BEASKOA	Kortazar
46.- DOLARAGA BEKUA	Larrinaga
47.- DOLARAGA GOIKUA	Larrinaga
48.- EGUREN GOIKUA	Gallate
49.- ELUNZETA	Gardata
50.- ERKIAGA BEKUA	Soloaran
51.- ERKIAGA ERDIKUA	Soloaran
52.- ERKIAGA GOIKUA	Soloaran
53 - ERREMENTARIKUA	Kortazar
54.- ESMEITXU	Soloaran
55.- ETXEBARRI ZARRA	Barainka
56.- ETXEBARRIETA	Soloarte
57.- ETXETXU	Gallate
58.- EZUNETA AURREKOA	Kurtziaga
EZUNETA ATZEKUA	Kurtziaga
59.- GALLATE	Gallate
60.- GALLATE ERDIKUA	Gallate
61.- GALLATEBEITIA BEKUA (Beitxi)	Gallate
62.- GARAI	Soloaran
63.- GARATE	Mendazona
GARDATA ARANEKOA (Ikus Arana)	
64.- GARRO (Soloarte Erkiaga)	Soloarte
65.- GASPARENKUA (Bidegain)	Arropain
66.- GAZETA	Kortazar
67.- GOENEKUA	Gardata
68.- GOENENGUA	Kurtziaga
69.- GOENENGUA	Gallate
70.- GOITXI	Gallate
71.- GOITXI (Soloaran Goitxi)	Soloaran
72.- GOXEASKOA	Kortazar
73.- GOXEASKOA (Naño)	Barainka
74.- GOXEASKOA	Gardata

75.- IGARTUA	Kortazar
76.- IPARRAGIRRE	Artikas
77.- IRATZEGI BEASKOA	Barainka
78.- IRATZEGI ERDIKUA	Barainka
79.- IRATZEGI GOEMENGUA	Barainka
80.- IRUETA	Mendazona
81.- IRUETA ETXEBARRIA	Mendazona
82.- IRUKURTZIETA	
83.- KORTAZAR	Kortazar
84.- KURTZIAKUA	Kurtziaga
85.- LAKA	Gallate
86.- LARRINAGA BEKUA	Larrinaga
87.- LARRINAGA GOIKUA	Larrinaga
88.- LEGORTZA	Kortazar
89.- MADARIETA (Mata)	Barainka
90.- MENDEZU BEKUA	Mendazona
91.- MENDEZU ERDIKOA	Mendazona
92.- MENDEZU GOIKUA	Mendazona
93.- NATXIONDO	Solaran
94.-OLABE	Barainka
95.-OLAKO ETXEBARRI	Mendazona
96.-ORANEGI	Gallate
97.-ORMAEGI	Kurtziaga
98.- ORMAEGI AURREKOA (Zamora)	Kurtziaga
99.-ORMAETXE	Gardata
100.- OTEGI	Gallate
102.- SOLAUN BEKO (Solóaga Beko)	Soloaran
103.- SOLAUN GOIKO (Soloaga Goiko)	Soloaran
104.- SOLOARTE GOITIA	Solarte
105.- SOLOARTE NAGUSIA (Aldeko Goiko)	Solarte
106.- SOSUENEKOA	Arropain
107.- TORRE	Kurtziaga
108.- TORRE BARRI	Kurtziaga
109.- TXAPEL	Kurtziaga
110.- TXANTON TORRE	Kurtziaga
URREBASO (Ikusi Beiti Bekua)	Gardata
111.-URIKOA	Gardata
112.- URKIAGA (Urkixa)	Soloaran
113.- URKIXA AURRE	Artikas

114.- URKIXA TORRE	Artikas
115.- URIARTE BEKO	Larrinaga
116.- URIARTE GOIKO (Antonekua)	Larrinaga
117.- URIBARREN	Larrinaga
118.- URUBILLA (Urubiza)	Artikas
119.- ZABALA	Barainka
120.- ZARANDU ANDIKOETXEA	Mendazona
121.- ZARANDU BENGOETXEA	Mendazona
122.- ZARANDU ETXEBARRI	Mendazona
123.- ZARANDU GOIKOETXEA	Mendazona
124.- ZATIKA	Artikas
125.- ZATIKA ERDIKUA (Beaskoa)	Artikas
126.- ZATIKA NAGUSIA (Mutione)	Artikas
127.- ZATIKA NAGUSIA (Albokua)	Artikas
128.- ZATIKATXU	Artikas
129.- ZELAI	Soloarte
130.- ZERENDA GOIKO (Zerenga Torre)	Artikas
131.- ZERENDA BEKO	Artikas
132.- ZERTUTXA (Tirtitxa)	Artikas
133.- ZUMETEGI BEKOA	Solarte
134.- ZUMETEGI GOIKOA	Solarte
135.- ZUBIETA (Baserría)	Arropain
136.- ZUBIETA (Jauregia)	Arropain



BASERRI-ETXERIK ETXE

Etxe batzun jarraipena erreza da.

Beste batzuna, nastetsua, denporetan izen aldatzeak euki da-bezelako.

Beste batzuk ba dirudi erre edo jausitako utsaldiak euki zituela egiten ziran errotzetan.

Ba dagoz Beiti, Goiti, Beaskoa, Gojeaskoa eta abar, erraz naastuten diranak, auzo edo toki bat baiño geiagotan izen bardiñekoak dagozalako.

Edozetara be, etxe bakoitzaren jatorria eta bizia alik zeatzen agertzen aleginduko gara.

Lenengo errotze edo «fogeraziñoia» 1704 urtean egin zan.

Gero beste bat 1745-1746 urteetan.

Irugarren bat 1796 urtean.

1814 urtean Ipazter'eri ezarritako erri-zerga edo kontribusiñoako agiriak be baliagarri dira askotan, bai eta 1823'koak be, baserriei euren bizibidean jarraitzeko.

Agiri orreitan oiñarrituko gara.

Txiki nai andi, aberats nai beartsu begiratu barik, Alfabetaren agertuko doguz etxeak.

Etxe bakoitzaren argazkia beste orrialdetan arki al izango da, guztiena ataraten alegindu garealako.

A

ABOITIZ ETXEBARRI Mendazona auzoan

Etxe onen orman esaera au irakurten da:

Esta Casa
LLMA URRU
TIA EXECUTO
MARTIN 1822.

Idazkera ori irakurtean, esan lei 1822 urtean egiña dala. Alaz eta baserri onen urratsak aurretik datoz.

1704 urtean P. Arkotxa agertzen da bere jaube lez; 1746 eta 1796 urtetan J. Unzeta. 12 hektareako ingurua dauka. Gaur utsik. Lurrez Ipazter, baiña eleizaz Ereño'n sartzen da.

Jaube lez Kastor Urrutia eta Delicia Otera, Conde Arana Salazar'en alarguna agertzen dira.

ABOITIZ NAGUSIA. Mendazona auzoan

1704 urtean Antonio Endeiza zan jaube. 1746 urtean Juan Endeiza.

1796 urtean Fco. Endeiza. 1823 urtean Martin Urrutia.

1987 urtean Kastor Urrutia eta Delicia Otera'ren izenean dagoz jaube-agiriak. Lurrez Ipazter, eleizaz Ereño.

ADORRIAGA Adorrixa. Solarte auzoan

1704 urtean Antonio Mugartegi zan jaubea. 1746'an Pedro Madariaga.

1796 eta 1823'en J. A. Ojangoiti.

Gaur bizitza bitan bananduta dago.

Bataren jaube, Antonio Garate Atxabal agertzen da eta bere familiagaz bizi da. 5 hektarea.

Bestearen jaube, Zabaleta Gabikajogeaskoatarrak. Bertan Domingo Zabaleta bizi da emazte eta arrebagaz. 5 hektarea.

AGARRE. Kurtziaga auzoan

1772 urtean egiña da.

1796 urtean Celedonio Axpe zan jaubea. 1823'en Modesto Elordui.

1987'n Nikolas Bengoetxea eta Karmen Zamora. Familjagaz bizi dira. 16 hektarea.

AGIRRE SOLARTE (Agarre) Solarte auzoan

Etxe onetako armarrian esaten da: Lo hizo Jose Antonio de Aguirre Solarte, año de 1806.

Alaz eta baserri onen entzutea atzeragotik dago.

1704 urtean A. Olea zan jaube; 1746'en I Agirre Solarte; 1796'en J. A. Agirre Solarte eta berbera 1823 urtean be.

1987'n Atxabal Bilbao'ren oñordekuen izenean dago. Eta bizitza bitan banatuta dago. Baten Blas Zabala eta familia bizi dira, bestean Rosario Orbe (alarguna) eta beretararak.

Cristobal Colon'egaz ibili zan Juan Antxia emen jaio zala esaten da. Mutil onen kondaira liburu onetako Ipaztertarrak itxasoan atalean agertzen da.

Parrokian, jarrilekoen azpian geratzen dan illobi zarretako estalkiak, «Agirre Solarte 1616» diño.

AGIRRE ESKALANTE Alagarre. Gardata auzoan

Izen onegaz ez da agertzen 1796 urterarte. Urte onetan Maria Erkiaga zan jaube. 1 823 urtean Modesto Elordui.

1987 urtean Rufino Lekerikabeaskoa. Bere familiagaz bizi da. 8 hektarea.

AIXE EDER Soloaran auzoan

1729 urtean egiña da.

1 723 urtean legorte andia egon zan Bizkaia'an. Aren ondorenez, Olanda'n egozanaren erara jaso zan errota zan. Urte gitxi eza-gutu zan lanean, 1 745 urterako bere lanbidetza itxita eukalako.

Jose Gizaburuaga'k egin eban.

Luzeran amar metro inguru daukaz. Bardintsu zabaleran. or-mak, beian, 1,40 metrotako lodiera dauke.

Errotaren gerutzarrak (egalak) kendu egin eutsezan, eurekaz norbait il zalako.

M. Garabilla'ren jaubetasuneko da eta aste buruetako bizi to-kitzat erabilten da.

Bizkai'ko Aldundiak ataratako MONUMENTOS DE VIZCAYA II Liburuan, Bizkaiko monumentu lez agertzen da.

AIXE ERROTA Soloaran auzoan

Gaur utsik dago.

8 hektarea.

1796 eta 1823 urtetan Jungitutarren izenean egoan. Gaur Isidro Salinas'en jaubetasuneko da.

ALDEKO BEKO edo KORTAZAR ALDEKOA

Kortazar auzoan.

Jaubeak: 1.704 urtean, J. Kortazar. 1746'en M. Atxabal; 1 796'en I. Agirre. 1 987'n Jose M. Agirre Amias.

Etxe bizitza bi daukaz. Baten jaubea, eta ama bizi dira. 14 Hektarea. Tolarea be ba dauka. Bestean Jose Luis Madarieta eta familia bizi dira.

AMILLAGA Arropain auzoan

Jaubeak: 1704 urtean P. Goikoa. 1 746'en Santiago Uskola. 1796'en Markos Uskola, abadea. 1987'en Lorenzo Foruria. 7,5 hektarea daukaz. Gaur utsik.

ANSORENA Barainka auzoan

Jaubeak: 1704 urtean Migel Barainka; 1746'en Jose Rente-ria, itxas kapitana, eta berbera 1796'en be. 1823'en Jose Ag.

Renteria.

Gaur etxe bizitza bitan banatuta dago.

Bateko jaubea Fermin Atxabal agertzen da. 1 3,5 Hektarea.

Besteko jaubea, Baldomero Aboitiz, 1 7,5 hektarea.

ARANA Gardata auzoan. **Gardata Aranakoa**

Jaubeak: 1.704'n Antonio Axpee; 1 746'en J. Bermeosolo; 1796'en M. Arrizubieta. Gaur Markuerkiaga-Galletabeitiatarren izenean dago.

Errenteru lez Pedro Maria Larizgoitia bizi da bere familiagaz. 7 hektarea.

ARANA TORRE Larrinaga auzoan

Jaubeak: 1704 urtean, Maria Arana. 1746 eta 1796 urtetan, Tomas Gazitua. 1823'en Ramon Gazitua.

1 987.- Etxe bizitza bitan banatuta.

Baten, Ana Korta Ikaran jaubea bizi da. 7 hektarea. Bere familiagaz bizi da. Bestean Tomasa Apraiz Erdozia bizi da bere familiagaz. 7 hektarea.

Etxe onetan jaiotako Jazinto Arana, Zamora'ko gotzain izan zana. Liburu onetako Gizonak atalean agertzen da bere bizitza.

ARBIONDO Kortazar auzoan.

Jaubeak: 1.704'n Pedro Bidarte; 1746'n Juan Urrosolo; 1796 urtean Arbiakoa izenagaz agertzen da; jaubea Jose Iñazio Gallatabeitia, Lekeitio'ko biztanlea. 1823'en Fco. Arruabarrena.

1987'n Jose Enrike'Lertxundi. Bere familiagaz bizi da. 3.000 m²

ARGIN Mendazona auzoan

Izen onetako bi egon ziran: Bekoa eta Goikoa edo Errota. Domingo Zarakondegi abadea izan zan errota egin ebana.

Gaur orma zar bihurtuta dago. Jaubetasuna Pedro Okamika'rena da. 3 hektarea.

ARRITOLA Mendazona auzoan

Jaubeak: 1704 urtean Franzisko Arritola; 1 946'en M. Arritola. 1796 eta 1814'n S. Unzeta.

1 987'n Jokin Etxauri Murgia.

Etxean Jesus Maguregi bizi da emazte eta seme-alabekaz, errenteru lez. 36 hektarea.

ARRIZUBIETA Barainka auzoan

Jaubeak: 1704'n Migel Arrizubieta; 1746'en Pedro Gabika-etxebarria. 1796'en Juan Gabika-etxebarria; 1823'en Ana Latxiondo. 1897'en Manuela Gabikaetxebarria ta P. Kalzakorta.

Errenteru lez, Sabin Malaxetxebarria ta emaztea bizi dira bertan.

Armarrian Viva JHS Ano D. 1798 ipinten dau.

ARTÉAGAKUA Solarte auzoan. **Artiakoa**

Jaubeak: 1704'n eta 1746'en Iñazio Asterrika. 1796'en J. I. Gallatebeitia. 1987'en Felix Gallatebeitia. Familiagaz bizi da. Baserri inguruan artea asko dago. Ezti artzen dabe. 12 hektarea.

ARTELEORRAGA Mendezona auzoan **Altaleorra-Agarre**

Jaubeak: 1704 eta 1746'en Iñazio Asterrika. 1796'en Katalina Artaleorraga. 1987'en Migel Angel Eguren. 42 hektarea. Utsik dago. Bei, txal, beor, zaldi eta mando asko daukaz bertan.

ARTZAKO - ARTZARAN Artikas auzoan

Izen biekaz agertzen zan len. Gaur jausita dago. 2 hektarea. Jaubea: Maria Leniz Okamika.

ARTZAIL Artikas auzoan

Gaur Artzail izenagaz ezagutzen diran iru etxeak, 1704 eta 1746'ko erroltzetan Artzail orde, Artaza izenagaz agertzen dira.

1704'ko erroltzean ez da bereiztuten Bekoa, Erdikua eta Goi-kua zeñenak diran, nai eta jaubeen izenak agertu: Min Burgaña, Min Angiz eta Simon Bermiosolo.

ARTZAIL BEASKOA EDO BEKOA

1745'n J.M. Garamendi zan jaube eta 1796'en Tomas Garamendi.

1987'n Elvira Garamendi eta Juan Larruzea dira jaube. Juan Bollar bizi da errenteru lez. 8 hektarea.

ARTZAIL-ERDIKUA

1745'en Martin Gozo zan jaube eta 1796'en Maximo Iza. 1987 urtean Rufina Uribarren da jaubea eta semeagaz bizi da bertan. 10 hektarea.

ARTZAIL GOIKUA

1745'en Simon Agirre zan jaube eta 1796'en Antonio Agirre. 1987'n Pedro Lezeartua. Familiagaz bizi da bertan. 5 hektarea.

ATX-ATZEKOA - ATXA Gallate auzoan

1 704 urtean Atxa Goikua lez agertzen da eta Anton Atxa bere jaube. 1 746'en Fermin Oriosolo da jaubea eta 1 796'en Antonio Zatika.

1 987'en Jose A. Zatika. Bertan bizi da. 14 hektarea.

Beste etxe-bizitzan Margarita Arrizubieta bizi da, erreteru lez.

ATX-AURREKOA. Atxaurre. Gallate auzoan

Jaubeak: 1 704 urtean «La otra casa de Atxa» lez agertzen da eta Mondragoeko fraile frantziskotarrak ziran jaube eta bardin 1746 urtean. Era berean 1796'en 1987'n Dominga Bilbao alarguna da jaubea eta bere familiagaz bizi da. 1 2 hektarea.

<_TXABAL So.oarte auzoan

Jaubeak: 1704 urtean Domingo Atxabal umea, «menor en días» diñoek paperak. 1746'en Maria Atxabal. 1796'en F. Madarieta. 1987'en etxe bizitza bitan erdibituta dago. Baten Josefa Gallatebeitia Atxabal bizi da bere familiagaz, eta bestean Juan Manuel Madarieta, bereagaz. 9 hektarea bizitza bakoitzak. Armarria (eskudoa) dauka.

AXPE

Izen onetako sei etxe ezagutzen dira Kortazar auzoan.

AXPE AURREKOA

1704 urtean iru Axpe agertzen dira, baiña gaiñeko deitura barik.

1 745'n bardin.

1 796 urtean Axpe Argiñena agertzen da.

1987 urtean Antonio Atxurra «ikazgiñaren» izenean dago jaubetasuna eta bere familikoak bizi dira.

AXPE ERDIKUA

1 745'n Domingo Uriarte zan jaubea.

1 796'en Adan eta Jose Uriarte.

1987'n Cruz Telleria Lete'ren izenean dago. Bere familiagaz bizi da. 9 hektarea.

Torre etxe izan zan. Karlos IV garrenak lenengo etxeoineraño moztuteko agindu eban, Ipazter'eko idazkari zan Lekuona'ren esanetan.

AXPE ETXEBARRI. «Gartxou»

1745'en Franzisko Artaza zan jaube. 1796'en S. Unzeta. 1816'en Axpe Barria izenagaz agertzen da eta S. Unzeta bere jaube.

1987'en Jose Alkorta Abaroa'ren oiñordekuen izenean dago. Errentan artuta dauka Julian Uriarte'k, aste buruetarako. 10 hektarea.

«Gartxou» deituraren jatorria era onetan azalduten dabe bertakuak. Bein Pedro Uriarte bertakoari eskolarako makil gogor bat eroateko eskatu ei eutsen. Arek gartxue eroan eta ortik berari deitura ori emon.

AXPE GILINTXARAN Basokoetxe

1987'en Iñazio Bilbao Barainka'ren jaubetasuneko da. Se-meagaz bizi da bertan. 8 hektarea.

«Gilintxa», bertakuak diñoenez, ikaztu barik gelditzen dan egurra da.

AXPE GILIZ. «Txutxunekua»

Jaubeak: 1704'n Maria Giliz; 1796'en A. Jungitu. 1987'en Eugenio Zilloniz, eta bere familiagaz bizi da. 10 hektarea.

AXPE KALZADA

Jaubeak: 1746'urtean Pedro Ugarriza. 1796'en eta 1823'en J.A. Renteria. 1987'en Maria Isabel Alkorta Coello de Portugal.

Etxe bizitza bitan banatuta dago.

Baten Luis Mendikute eta familia bizi dira, erreteru lez. 7 hektarea. Bestea, bizi toki lez, utsik dago. 7 hektarea.

B

BALZOLA Jaunene Barainka auzoan

Gaurkoak diñoe JAUNENE izena bertako jaube izan zan Pantxo'tik datorkiola. Gizon au Argentina'ra joan ei zan eta diruz etorri. Jenteak «Pantxo Jauna» Jaunene, deitzen ei eutsan.

Baiña ba dirudi izen edo deitura ori aurretikoago izan leikela.

1704 urteko erroltzean, Barainka de Jaun Zuria izenagaz ágertzen da etxe bat eta Juan Aboitiz agertzen zan bertako jaube lez.

Gaur etxe onen jaubea Pedro Santos Torres da. Prudencia eta Juan Gabikagogeaskoa bizi dira bertan errenteru lez.

Bolatoki bat egon zan etxe onen inguruan. Beste alde, baserri onetatik zaldizko burdi edo dilijentziak urteten eban Gernika'ra jendea eta arraiñak eroateko. Etxetik 'amar metrotara telleri bat egon zan.

BALZOLA Jaunene Andresena

«Jaunene» baiño zarrago da baserri au. Alkarren onduan dagoz.

Gaur utsik dago. Luis Paes Galbes'en izenean dagoz jaubetasun agiriak. 2.500 *m.z*

BARAINKENA

1 704 urtean Franzisko Lea Barainka izan zan bertako jaube.

1 746'en Domingo Aboitiz. 1796'en Antonio Aboitiz. Barainka Nagusia deitzen zan.

Gaur etxe bizitza bitan banatuta dago. Bat Eustakia eta Martin Arrizubietaren jaubetasuneko da. 12 hektarea. Utsik. Bestea Jose Arrizubietarena da, eta senar emazteak bizi dira. 12 hektarea.

BARRENGUA Gallate auzoan

Batzuk Zertxutxa Barrenengua deitzen dautse.

1704 urtean Domingo Oleaga zan jaube. 1 746'en Zeledonio Uriarte.

1 796'en Juan Erkiaga, eta 1 823'en Domingo Erkiaga.

Gaur utsik dago. Jaubea: M. Madarieta'ren oiñordekoak. 8 hektarea.

BATIZ NAGUSIA Artikas auzoan

1 704'n Antonio Mugerza zan jaubea. 1 746'en Monterron'go kondea. 1 796'en Xabier Egia; 1 823'en M.ª Josefa Villarreal.

Gaur etxe bizitza bitan banatua:

Etxeko jaube Ana M.ª Murga da. Baten Burno Bengoetxea bizi da bere familiagaz, errenteru lez. 13 hektarea. Bestean Eusebia Arriaga, familiagaz. 1 3 hektarea.

BATIZTXU

1 746 urtean Batiz Erdikoa lez agertzen da. Jaubea F. Menda-zona.

1796 urtean Batiztxu lez, jaube berbera.

Gaur Jose Iñazio Ojangoiti'ren izenean dago, baiña etxe lez azpaldi galdu zan.

BATIZ BEKOA Ateun

1704'n Iru Batiz agertzen dira, jaubeen izenekin bakarrik.

1796'en Jose A. Ojangoiti.

1814'en Jose Urresti agertzen da jaube lez, Batiz bekua'ren izenean petxa ordaintzen.

Gaur Milagros Zamora'ren izenean dago jaubetasun agiria. Bertan bizi da aitagaz. 3 hektarea.

BEITXI Gardata auzoan

1704 urtean lau BEITXI izeneko etxe agertzen dira errotzetan, bata Barainka'rena, bestea Azterrika'rena, bestea Mendazona'rena eta laugarrena Goikoetxea'rena.

1796'en Beitxi aldeko eta Beitxi bekua dagoz, bai eta Beitxi goikua be. Jaubeen izenei begiratua, BEITXI au Beitxi Aldekoa'ri dagokio.

Onen jaube 1796 urtean Franzisko Mendazona zan. Gaur Juliana Mendazona'ren izenean dago eta bertan bizi da, alargun, semeekaz. 8 hektarea.

BEITXI GOIKO Gartzianekua Gardata auzoan

1796 urtean Basilio Aranguren'en izenean agertzen da etxe au.

Bardin 1814'n. Gaur Jose Mari Cantero eta Rosario Aranguena'ren izenean dago. Bertan bizi dira senar emazteak.

8 hektarea.

BEITXI BEKO Gardatza auzoan Beste deitura: Urrebaso

1746'en Gabriel Eizmendi zan jaubea.

1796 urtean Josefa Txakartegi'ren izenean egoan. 1823'an Juan Ant. Atxurra. Gaur Migel Atxurra da jaubea.

Utsik dago. 9 hektarea.

Etxe onetan jaio zan Urrebaso frailea deitzen eutsena. Aita Atxurra, idazlea.

BELAUSTEGI Barainka auzoan

Jaubeak: 1704 urtean Jose Mendiola.

1746 urtean, Lekeitio'ko Jesuitak agertzen dira jaube lez. 1796'urtean Pedro Leniz. 1823 urtean etxe bizitza bitan erdibitu-

ta agertzen da. Zati baten jaube Domingo Bengoa zan eta besteko jaube Jose Andres Leniz. Gaur be ordukoen oñordekoak jarraitzen dabe. Ala baten, Maria Leniz da jaube, baiña etxea utsik dago. 12 hektarea. Besteko jaube Domingo Bengoa'ren oiñordekuak agertzen dira eta Isidro Iza eta arreba bizi dira errenteru lez. 6 hektarea.

BEIMGOETXEA Barainka

1 704 urtean Barainka-Bengoetxea lez agertzen da eta Bautista Barainka bertako jaube. 1746'en Ana Zabala. 1796'en Manuel Bengoetxea. 1823'en Franzisko Okamika. Gaur Jose Luis Okamika da jaube eta emazteagaz bizi da bertan. 14 hektarea.

BEIIMA Gardata auzoan

1705'n Franzisko Barainka agertzen da jaube. 1746 Antonio Uribarren. 1796'en Beiñakoa izenagaz Agustin Abaroa. 1823'en Pedro Uribarren. Bere ormetan au ipinten dau: «Pedro Uribarren» Año 1824».

Gaur Juan eta Franzisko'ren izenean dago. Bertan bizi dira. 9 hektarea.

BEIMTA ZARRA Arropain auzoan

Gaur orma utsak.

Denpora baten itxas ontzien arraiñak bertan legorreratzetan. Arrain saltoki edo lonja lez erabilten zan. Baserri eta taben be izan zan. Gaur lekuko jaubetasuna Pedro Arakistain eta Klimente Plaza'ren izenean dago.

BEASKOA (BIZKUA) (Kortazar Auzoan)

1 704 urtean Mateo Uriarte zan jaube. 1 746 urtean M. Leniz 1 796'en Iñazio Leniz. Bardin 1 823 urtean.

Gaur jaube lez Josefa I. Gallatebeitia agertzen da.

Errenteru lez Ines Atxurra bizi da bertan.

Ogia erreteko laba dago. 8 hektarea.

D

DOLARAGA BEKUA Larrinaga auzoan

1 704'ko erroltzan Antonio Lariz agertzen da jaube. 1 746'er Juan Igarza. 1796'en Agustin Barainka eta 1823'en Domingo Garatea. Gaur Joseba Gorroñó eta Rosa M. Erkiaga senar-emazteen izenean dago. Bertan bizi dira aita eta seme alabekaz.

9 hektarea.

Bertako aita alargunak entzute andia euki izan dau eiza eta arrantzan. Bein tiro bigaz 21 uso il zitula esaten da eta iru-lau ordutan 99 olagarro arrapatu aitzetan.

DOLARAGA GOIKUA Larrinaga auzoan

1704 urtean Juan Dolaraga bizi zan bertan, etxe jaube lez. 1746'en berbera agertzen da. 1796'en Juan Mendezona da jaube eta bardin 1 823 urtean. Gaur Dionisio Mendazona'ren izenean dago. Len telleria egon zan bertan. Itxasoz eroaten eben egiten eben guztia Ogella'tik. 30 langille ibilten ziran. 1 5 hektarea. Bertako lurraldeari «Dolen Koba» edo Larrazabal'go koba deitzen dana agertzen da. Gaur utsik dago.

E

EGUREN GOIKUA Gallate auzoan

1 704'ko errotzean Pedro Bernardo Villareal agertzen da jaube lez, eta Domingo Telleria bertako erreteru. 1746'en Monterron'go kondea.

1796'en Xabier Egia eta 1823'en Maria Josefa Villarreal. Len iru etxe bizitzatan banatuta egon zan. Orain Maria Paz Manso de Zuñiga da jaubea. Bertan, erreteru lez, Jose A. Malax-etxebarria, emaztea eta alaba bizi dira. 20 hektarea.

ELUNZETA Gardata auzoan

1745'en Iñazio Galdona agertzen da jaube lez. Errotzean esaten da etxe barria dala.

1 823'en Espilla'ren semeak agertzen dira jaube.

Gaur, jaube agiriak «Maderas de Lekeitio S.A.»ren izenean dagoz. Bertan, Domingo Okamika eta familia bizi dira erreteru lez. 8 hektarea.

ERKIAGA BEKUA Soloaran auzoan

1704'ko errotzan Erkiaga Beaskoa izenez agertzen da eta Andres Erkiaga jaube. 1 746'en Margin Erkiaga. 1 796'en Madale-na Uriarte. 1 823'en Juan de Erkiagabekua.

Gaur etxe bizitza bi. Jaube Iñazio Arriaga.

Baten Antonio Arrizubieta bizi da bere familiagaz.

Bestea utsik dago. 22 hektarea danetara.

Damaso Uribe gizon probetan entzutetsu zana, emen bizi zan.

ERKIAGA ERDIKUA (Soloaran auzoan)

1705'ko errotzan Franzisko Bollar agertzen da jaube. 1746 urtean Jose Bollar. 1796'en M. Zatika eta berbera 1823'en.

Etxeke orman esaera au agertzen da: «Domingo de Bollar hizo en 1788».

Gaur Eduardo Amias da jaubea. 11 hektarea. Utsik dago.

ERKIAGA GOIKUA. Soloaran auzoa

1704'ko errotzean «Erkiaga goenengoa» izenagaz agertzen da eta Santiago Soloaran bertako jaube eta bizilagun.

1746'en Carlos Barainka, eta 1796'en Juan Barainka. 1823'en Karlos Barainka. Gaurko jaubea Martin Loitina da. 7 hektarea. Utsik dago.

ERREMENTARIKUA Kortazar auzoan

1704'ko errotzean Kortazar Rementeria lez agertzen da eta bere jaube Uriarte Rementeria bat. 1746'en M. Etxebarrieta. 1823'en jabier Iturraldea. Gaur utsik dago. Eta Emilia Korta Iturraldea'ren jaubetasuneko da. Len etxe bizitza bikoa izan zan.

ESMEITXU Esmintua Soloaran auzoan

1704'n Bilbo'ko Kurutzeko Monjak ziren bertako jaube eta Pedro Solarte Goitia bizi zan bertan.

1796'en Adan de Yarza'ren izenean dago.

1823'en Juan Madarieta zan ordaintzen ebana.

1987. Utsik dago. Jaube lez, Fermin Kortabitarte. 16 hektarea.

ETXEBARRIZARRA Barainka auzoan

1704 urtean Antonio Arkotxa zan jaube. 1746'en Madalena Etxebarria. 1796'en Junguitu jauna, Elorriokoa. 1823'en berbera.

Gaur Karlos Torres Madarieta da jaubea eta Karlos Ibarra eta emaztea bizi dira bertan errenteru lez. 10 hektarea.

ETXEBARRIETA Solarte auzoan

1704'ko errotzan M. Atxurra irakurten da jaube lez. 1746 urtean Domingo Uriarte. 1796'en Juan Andres Leniz, eta 1823'en Iñazio Leniz.

Gaur utsik dago. Jaubea, Jose Ramon Gallatebeitia. 12 hektarea. Arteaga baserrikoak zaintzen dabez emengo ganadu eta erle etxeak.

ETXETXU Gallate auzoan

1704 urtean agertzen da Oranegi'ko Etxetxu lez.

Jaubea Jose Agirre.

Gaur Maria Juana Arrizubieta'ren izenean dago jaubetasuna. Asteburuetakoa erabilten dabe. 9,5 hektarea.

EZU1META AURREKOA Kurtziaga auzoan

1704'ko errotzan A. Ibañez de la Rentena ren jaubetasuneko zan, eta bertan Clemente Egizabal bizi.

1746 urtean Jose Bizente Kapitanaren izenean egoan eta 1796 urtean Jose A. Renteria, au be itxas kapitana. 1823'en bere alarguna zan jaube. Gaur Mitxel Eward Nicholson Solano'ren jaubetasuneko da eta emazteagaz bizi da. 6 hektarea.

EZUNETA ATZEKUA Kurtziaga auzoan

1704'n Antonio Mugartegi'ren jaubetasunean egoan. 1746'en Pedro I. Madariaga'renean. 1796'en Jose Ojangoiti'renean eta 1823'en bere alargunaren izenean.

Gaur jaubetasun agiriak Jose I. Ojangoiti'ren izenean dagoz.

Utsikdago. 6 hektarea.

G

GALLATE BEKUA Gallate *auzoan*

1704 urtean, Bta. Gallatebeitia zan jaube eta bertan bizi zan. 1746 urtean Juan Gallatebeitia eta 1796'en Juan Antonio. 1823'en Domingo Gallatebeitia.

1987'n Domingo Gallatebeitia da jaubea eta familiagaz bizi da. 16 hektarea.

GALLATE ERDIKUA Gallate auzoan

1704 urtean Julian Zabala zan jaube eta bertan bizi zan.

1746'en Franzisko Zabala eta 1796'en Iñazio Zabala.

Gaur Garabillatarren izenean dago.

Domingo Zabala eta emaztea bizi dira erreteru lez. Labea dauke. 16 hektarea.

GALLATE GOIKUA Gallate auzoan

1704 urtean Iñazio Asterrika zan jaube. 1745'n Jose Asterrika, abadea. 1796'en Kortazar'en kapellautzari egokiona zala esaten da.

1 814'n Gil Gallatebeitia da petxak ordaintzen dauzana.

Gaur Eugenia Kobeaga'ren izenean, eta alaba, suin eta lobe-kaz bizi da. 12 hektarea.

GARAI Soloaran auzoan

Eduardo Amias da jaubea, senar emazteak bizi dira.

Baserri au Erkiaga Erdikoaren garaixa izan zan.

GARATEA Mendezona auzoan

1704 urtean Maria Garatea ezagutzen da bertako jaube. 1746'en Domingo Uriarte. 1823'en Agustin Lekerika.

Erdi jausita dago. Jaubea M.º Bitoria Alzola. 11 hektarea.

GARRO Solarte auzoan

Erkiaga be deitzen dautse etxe oneri.

1746 eta 1796 urtetan Erkiagatarrak ezagutu ziren bertan. 1823'en Juan Jose Solarte. Gaur utsik dago.

Aldi baten taberna eta denda lez erabilten zan.

2 Hektarea. Jaubeak Serafina eta Jose Maria Juaristi dira.

GASPARRENEKUA. - BIDEGAIN Arropain auzoan

1704 urtean irakurten danez, etxetu au, Bidegain etxetxua, erre egin zan, eta ez eban ordaindu nai izan erri-zergarik.

Gaur Emiliano Egiguren eta M.º Pilar Urrutia, senar emazteak bizi dira bertan. Hektarea bi.

GAZETA Kortazar auzoan

1704 urtean I. Garai zan bertako jaube eta bizilagun.

1746 urtean Juan Txopitea.

1796'en J.F. Aranzibia, Axangizkoa.

Gaur utsik dago eta «Bodegas Roldan» en izenean dago jautetasun agiria. 2,5 hektarea.

GOENEKUA. Gardata auzoan

Gaur jausita dago. Domingo Atxabal da bere jaube. 7 hektarea.

1704'n A. Beitia bizi zan bertan jaube lez. 1746'n Maria Zatika. 1796'en eta 1823'en Franzisko Dolareaga.

GOENENGUA Gallate auzoan

1704'n P. Erkiaga zan jaube eta 1746'en Juan Erkiaga.

1796'en Sertutxa Goenagaz agertzen da eta Juan Erkiaga

berbera jaube.

1 823 urtean be Erkiagatarrak dira jaubeak.

1987'n Juan Rementeria'ren izenean dago eta bere anai eta onen emazteagaz bizi da. 1 5 hektarea.

GOENENGUA. Kurtziaga auzoan

1 746 urtean Antonio Arrinda'ren izenean agertzen da.

1 796 eta 1 823'en Domingo Goikoetxea'ren izenean.

Gaur Antolin Gorostola eta Tomasa Aboitiz'en izenean dago eta euren seme Jose Luis eta emaztea eta onein iru seme alaba bizi dira. 9 hektarea.

GOITXI Soloaran auzoan

1 704 urtean Franzisko Atxabal zan jaube eta bertan bizi da.

Gaur Eugenia Kobeaga Atxabal alargunaren izenean dago jaubetasuna eta bere familiagaz bizi da.

12 hektarea.

GOJEASKOA Kortazar auzoan **GOXIZKOA**

1 704'n M. Landeta'k eresia eukan.

1 746'en D. Gizaburuaga zan jaube eta 1 796 urtean D. Jungitu.

1 823'en Rosa Zarakondegi agertzen da zergak ordaintzen.

Gaur etxe bizitza bi.

Bietako jaubea Aureliano Barainka da.

Baten Julian Larrinaga eta familia bizi dira erreteru lez. 8 hektarea. Bestean Aureliano Barainka eta emaztea, jaubeak. 10 hektarea.

GOJEASKOA.NAÑOENA Barainka auzoan

XVIII garren mendean, Barainka Gojeaskoa lez ezagutzen zan etxe au, paperetan beintzat.

1814'ko agirietan, Nañoena lez agertzen da eta ala baita 1 823 urtean, eta Domingo Bengoa agertzen zan jaube lez.

Gaur jaubetasun agiriak Alejandro Erkiaga'ren izenean dagoz. Eulogio Izagirre eta emaztea bizi dira bertan.

13 hektarea.

Etxeko orman esaera au agertzen da: Barainca Gozeascoa
Domingo Bengoa
egin nenduen 1853

GOJEASKOA. Gardata auzoan **GOXIZKOA**

1704 urtean P. Oriosolo zan bertako jaube. 1746'en Jose Burgaña. 1795'en Juan Bakeriza, Lekeitio'ko bizilaguna. 1814'n Felix Burgaña.

Gaur Burgaña Uriartetarren izenean dagoz jaubetasun agiriak. Lau neba-arreba bizi dira bertan. 8 hektarea.

I

IGARTUA Kortazar auzoan

1704 urtean Domingo Mendiola zan jaube.

1745'en Lekeitio'ko Jesuiten Ikastetxea.

1796'en D. Unzeta. Bardin 1823 urtean.

Gaur Leon Zatika'rena da jaubetasuna. Bere familiagaz bizi da. 24 hektarea.

Ogia erreteko labea dago.

MPARRAGIRRE Artikas auzoan

1704 urtean N. Iparragirre zan jaube eta bertan bizi zan.

1746 urtean Bizente Renteria, kapitana eta 1796'en Jose A. Renteria, au be itxas kapitana. Berbera 1823'en be,

Gaur Juan Lasheras Adan de Yarza da jaubea eta Domingo Orbe bizi da errenteru lez.

10 hektarea.

IRATZEGI BEASKOA Barainka auzoan

1704'n M. Irazegi agertzen da jaube lez eta bertan bizi zan. 1746 eta 1796 urtean M. Madarieta.

1823 urtean Pedro Atxabal.

Gaur Felix Mingolarra da jaubea.

Utsik dago. 16 hektarea.

IRATZEGIERDIKUA Barainka auzoan

1704 urtean Domingo Lea Barainka zan jaube eta bertan bizi.

1746'en P. Etxebarrieta. 1796'en Mikaela Zarakondegi. Gerago, 1823'en Martin Etxebarrieta.

Gaur Fermin Kortabitarte da jaube eta Juan Jose Garate eta familikoak bizi dira bertan.

12 hektarea. Golden bereiztasuneko sagasti andi bat dauke.

IRATZEGIGOENENGUA Barainka auzoan

Iratzegi baserriak batzutan Iretegi lez be agertzen dira.

Goenengua au, 1814'en Iretegi goikua lez dago paperetan.

1 704'n Juan Zabala zan jaube. 1 746'en M. Zarandona. 1 795 eta 1823'en Martin Madarieta.

Gaur Pedro Jose Arrizubieta da jaube eta emazte eta alabagaz bizi da. 8 hektarea.

IRUETA Mendezona auzoan

1704 urtean Iñazio Asterrika zan jaube eta bertan Juan deitzen zan napar bat bizi zan, paperak diñoenez.

1746 urtean berberak jarraitzen eban jaube lez, baiña 1796 eta 1823 urtetan Gallatebeitiatarrek agertzen dira jaube.

Gaur Lopez de Abetxuko Madarieta'ren izenean dago jaubetasuna eta Genara Arrizubieta eta bere seme eta emazte eta euron semeak bizi dira.

6 hektarea.

IRUETA ETXEBARRI Mendezona auzoan

Gaur Juan Okamika da jaube, baiña utsik dago.

14 hektarea.

Lengo gizaldian Jabier Garatea'ren izenean egon zan bere jaubetasuna.

IRUKURTZIETA

Utsik dago.

Ipazter'erako bide-kururzean dago. Toki berbertan iru-kurutze dagoz.

Alf' «.do[^].íxi.ga, Sopusuerta'n bizi dana da bertako jaube.

2.500

K

KORTAZAR Kortazar auzoan

1 704 urtean beste etxetxu bat egon zan, «casilla de Kortazar, llamada Monte». A, orduan esaten zan lez, etxe erdika zan. Beste au osoa. Antonio Lariz zan bertako jaube. 1746 eta 1796'en J. Zatika.

1808 urtean frantzetarrek erre egin eben. Ordez barri bat jaso eben eta esaera au ipini orma nagusian: «Esta casa es Kortazar edificada por Juan Bautista Beaskoa año 1 837».

7 hektarea.

KURUTZIAGA Kurutziaga auzoan. **KURTZIAKOA**

1704 urtean iru Kurtziaga ezagutzen ziran: Beaskoa, Erdikua eta Goenengua geigarriekin.

Gaur utsik dago.

Baldomero Aboitiz da jaubea.

Aste buruetan agertzen da.

8 hektarea. Gaur Kivvits'ak landatuta daukez.

L

LAKA Gallate auzoan

Etxe onen aztarrenik ez da billatzen 1 700 urtetik onako pape-retan, izen orregaz.

Utsik dago.

Martin Zabala da bere jaubea. 5 hektarea.

LARRINAGA BEKUA Larrinaga auzoan

1 704'n M. Larrinaga agertzen da jaube eta bertako bizilagun lez. 1746 urtean Juan Atxabal eta 1796'en Antonio Atxabal eta 1 823'an Juan Martin Atxabal.

Gaur Gerbasio Aboitiz'en oñordekoen izenean dago. Antonio Gojenola ta familia bizi dira bertan errenteru lez.

1 0 hektarea.

Karlisten gerratean Juan «Torlutze» Aboitiz kapitana emen-goia izan zan.

LARRINAGA GOIKUA Larrinaga auzoan

1704 urteko erroltzean M. Larrinaga agertzen da jaube eta bertako bizilagun.

1 746, 1 796 eta 1 823 urtetan, Eiguren abizenekoak dira jau-beak.

Gaur jaubetasuna Julian Okamika'ren izenean dago etxe bi-zitza batena, eta 9 hektareadun inguruearena, eta bertan bizi da familiagaz.

Beste zatia eta 9,5 hektareako ingurua E. Gallatebeitia eta A. Malaxetxebarria'ren izenean dago.

LEGORTZA Kortazar auzoan

1 704 urtean Domingo Zabala zan jaube eta bertan bizi zana.

1746'en Andres Aranburu.

1796'en Juan Aranburu eta urte onetako paperetan «Lego-rosa» irakurtzen da.

Orain Juan Domingo Urrutia'ren oifordekoen izenean dago.

Orman 1773 urtea agertzen da, baiña itxuraz barriztapen batena izango da. Etxe bizitza bitan bananduta dago gaur, aste buru eta udan erabiliaz. 18 hektarea.

M

MADARIETA Barainka auzoan

Batzuk, laburtuta, MATA deitzen dautse.

1704 urteko erroltzean Santi Madarieta'ren oiñordekoen izenean egoan.

1745'n Madalena Arrizubieta zan jaubea. 1796'en Domingo Barainka.

1823'en Jose Atxabal.

Orain Jesus Gabikagojeaskoa'ren jaubetasuneko da.

Bizente Garate eta familia bizi dira bertan. Bai Jabier Gabikagojeaskoa probalaria be.

Baserri onetan jaio zan Patxi Gabika txirrindukari ospetsua izana bai eta «Jesus Mata» gizon probalaria be.

MENDEZU BEKOA Mendezona auzoan

1704 urtean «Don Iñazio'ren etxea lez agertzen da, abizenik esan barik.

1746'en Iñazio Asterrika da jaube, eta 1791 eta 1892'en Gil Gallatebeitia.

Orain Maria Bitoria Alzola'ren izenean dago eta asteburuetan etorten dira. Korteia jausita dauka.

20 hektarea. «Patxi Mendezu» be deitzen dautse etxe oneri.

MENDEZU ERDIKUA Mendezona auzoan

Mendezona abizena (apellidua) eroan eben luzaro etxe onetako jaubeak. Ala 1704'ko erroltzean, ala baita 1746, 1796, i 814 eta 1823'ekoetan be.

Gaur Elbira Garamendi'ren jaubetasuneko da.

Utsik dago, asteburuetarako lagata.

34 hektarea.

MENDEZU GOIKOA Mendezona auzoan

1704 urteko erroltzan Mendezona «goieta» deitureagaz agertzen da. Pedro Asturrigueta zan jaubea.

1746 urtean Kristobal Bakeriza.

1 823'en Agustin Lekerika.

Etxe bizitza bi daukaz, gaur.

Zati baten jaube Frazisko Amias da. 1 7 hektarea.

Bestekoarena, Eusebio Okamika Aboitiz. 18 hektarea. Sagasti ugari daukaz. Ur eta argi barik bizi da.

N

NATXIONDO Soloaran auzoan

Izen onetako etxetxu bat egon zan 1 704 urtean. Lekeitio'ko monjaena zan. Monja berberen izenean tellatua kendu jakon, eta lurrak geratzen jakozan, baiña monjak ez eben erriari ordaindu nai izan.

Urte orretan beste etxe bat agertzen da NATXIONDO izenagaz, Jose Arana jaube zala.

1 746'en Jose Natxiondo eta 1 796'en Juan Natxiondo agertzen dira jaube lez. 1814 eta 1823'ko agirietan, Natxiondo ordeztatu agertzen da.

Gaur utsik dago. Migel Angel Eguren'en izenean dago jaubetasuna.

27 hektarea. Bai eta txal ugari dagoz.

O

OLABE Barainka auzoan

1 704'ko erroltzen Domingo Aldazabal zan jaube.

1746'en Martin Atxabal. 1796'en eta 1823'en Franzisko Madarieta.

1987'en Fabian Aboitiz'en izenean dago.

Utsik. 12 hektarea.

OLAKO ETXEBARRI Mendezona auzoan

Jabier Otamendi'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak.

Tomasa Etxebarria Berrio eta bere familikoak bizi dira errenteru lez. 8 hektarea.

ORANEGI Gallate auzoan

1704'n Antonio Oranegi zan jaube. Geroago 1745'n Juan Oranegi.

1796'en eta 1814 eta 1823'en Manuel Etxebarrieta.

Etxe bizitza bi daukaz.

Bateko jaube Eugenio Zatika da eta bertan bizi da amagaz. 5,5 hektarea. Besteko jaube M. Angeles Laka. 4,5 hektarea. Jeronima Okamika bizi da errenteru lez bere alaba ta senarragaz.

Oranegitxu izeneko bat be egon zan.

ORMAEGI TORRE Kurtziaga'n

1704'n J. Arriaga Ormaegi'ren oiñordekoena zan.

1746'en Lekeitio'ko Eleiz gizonena. Bardin 1796'en eta 1823'en.

Gaur Juan Izagirre Mendazona'ren izenean dago.

1610 urtean jasoa dala dñoe.

9 hektarea.

Armarria dauka eta esaera au bertan: Estas armas de Vizcaya son las que tiene por suyas Judariaga Ormaegui como hijo legítimo y natural De Ella y las mandó poner en esta su casa y solar infanzonado Ormaegui como dueño y Señor tronquero descendiente de ella en el año de 1610.

Bertakoak itxastar kapitan eta pilotu lez ibili ziran XVI garren gizaldian.

ORMAEGI AURREKOA Zamora Kurtziaga auzoan

1704'ko errotzean «la otra casa de Ormaegi» lez agertzen da eta Jose Amillategi zan jaube eta bertan bizi zana.

1746'en Jose Amillategi berbera agertzen da jaube lez jarraitzen.

1796 eta 1823'en Iñazio Zamora.

Gaur Felix Badiola'ren izenean dago eta bertan bizi da, bere guraso, emazte eta seme alabekin. 8 hektarea.

Zamora etxea be deitzen dautse gaur.

ORMAETXE Gardata auzoan

1704 urtean, Gonzalo Uriarte'k eukan kapellanitzarena zala esaten zan. 1746'en Jose Gallatebeitia agertzen da jaube.

1796'en Manuel Itza.

Gaur Donato Uribe eta emaztearen izenean dago eta familia-gaz bizi dira. 6 hektarea.

ORMAETXE GOIKUA Gardata auzoan

1 704'n N. Zatika zan jaube eta bertan bizi zan.

1 796 eta 1823'en Juan Bta. Uriarte.

Gaur Juan Uriarte'ren izenean dago eta seme alaba eta neba-arrebekaz bizi da. 8 hektarea.

OTEGI (Otei) Gallate auzoan

Izen onegaz ez da agertzen lengo gizaldietan.

Domingo Gallatebeitia Erkiaga'ren izenean dago jaubetasuna eta Julian Gallettebeitia eta emaztea bizi dira, 6 seme alabekaz.

8 hektarea.

S

SOLAUN BEKO Soloaran auzoan

1704'ko erroltzean Soloaran izenagaz agertzen da eta Jose Arana zan jaube.

1 745'koan Soloaga izenagaz, eta Lekeitio'ko jasuitena zan.

1897'n Angel Juaristi da jaubea eta bere ama, emazte eta seme-alabekaz bizi da.

14 hektarea.

SOLAUN GOIKO Soloaran auzoan

1 704'n Soloaran izenagaz agertzen da paperetan.

1 745'n Soloaga izenez eta Lekeitio'ko jesuiten jaubetzako.

Gaur Iñaki Zabala'ren izenean dago jaubetasuna eta bere gu-raso eta anaiak bizi dira bertan.

2 hektarea.

SOLOARTE GOITIA Solarte auzoan

1 704'n M. Solarte zan jaube eta erriko alkate zan.

1 746'en Domingo Solartegoitia.

1 796'en Juan Soloarte.

1823'en Jose Solartegoitia.

Gaur Felix Urkaregi'ren jaubetasuneko da eta bere familia bizi da bertan. 1 8 hektarea.

SOLOARTE NAGUSIA (Aldeko Goikua) Solarte auzoan

1 704'n Franzisko Bengoetxea zan jaube. Bertan bizi zan.

1 745'n Solarte Aldekoa lez agertzen da eta Juan Erkiaga jau-

be.

1 796'n be Solarte Aldekoa lez eta Jose Erkiaga jaube.

Gaur etxe bizitza bi daukaz:

Bateko jaube Julian Zabala da eta bere familiagaz bizi da.

9 hektarea.

Besteko jaube Iñazio Ibarguren eta anaiagaz bizi da.

9 hektarea.

Armarria dauka esaera onegaz: JHS. MARIA Y JOSE Solarte Mayor 1 773 año.

SOSUENKOA Arropain

Izen onegaz ez da ezagutzen lengo denporetan.

Gaur Jose Antonio Okamika'ren izenean dago.

Bere gurasoak eta familia bizi dira.

3 hektarea.

Bertakoak diñoenez, zozo asko ibiltzen diralako dauka izen ori. Gure ustez ez da izen jatorra, geitua baiño.

T

TORRE Kurtziaga auzoan

Torre au azpaldi erre zan eta bertako jaubeak TXANTON TORRE baserria egin eben.

Jaubetasuna Concepción Arostegi'k dauka, eta bertan Pedro Arostegi eta familia bizi dira, erreteru lez.

1 7 hektarea.

TORRE BARRI Kurtziaga auzoan

Utsik dago.

C. Arostegi'ren jaubetasunekoa da.

TXAPEL Kurtziaga auzoan

Juan eta Rufino Euzagirre dira jaubeak.

Bertan bizi dira Rufino'ren emazte eta seme biekaz.

7 hektarea.

TXANTON TORRE Kurtziaga auzoan

Fermin Zamora eta P. Urresti'ren izenean dago jaubetasuna.

Euren seme bi, alaba ezkondua eta onen senar eta euren alaba bigaz bizi dira.

1 0 hektarea.

Etxe oneri beste deitura oneik be emoten dautsez: «Mendiku» eta baita «Vista Alegre».

U

URREBASO Beiti Bekua Gardata auzoan

Beiti Bekua'ren agerpenean aitatu dogu etxe onen agerbidea.

URIKOA Gardata auzoan

1 704 urtean M. Goro'ren izenean egoan.

1 746 urtean I. Goro'ren kapellautzari dagokiola esaten da.

1 796 eta 1 823'en Pédro Zuinaga, Markiñaldeko Etxebarrikoa zan bere jaube.

1987'en Rufina Galletebeitia'ren izenean dago eta bera ta alaba bizi dira bertan.

URKIAGA Urkixa Soloaran auzoan

1 704 urtean D. A. Iturraspe zan jaube.

1 746'en Jose Bixente Renteria kapitana.

1 796'en eta 1 823'en Jose A. Renteria kapitanarena.

Orain etxe bizitza bi:

Bateko jaube Ramon Silloniz da eta emazte eta semeagaz bizi da.

8,5 hektarea.

Besteko jaube Modesto Natxiondo da eta emazte eta semeagaz bizi da.

URKIAGA AURRE Artikas auzoan

1814 eta 1823 urtetan Santiago Unzeta da beragaitik zergak ordaintzen dauzana.

Iñazio Ruiz de la Prada da bertako jaube.

Bertan bizi diranak, Gregorio Egaña, emaztea eta alabak, errenteruak dira. 16 hektarea.

URKIAGA TORRE Artikas auzoan

1704'n Clara Barroeta agertzen da jaube eta esaten da enkantera (konkursora) ataratako etxea dala.

1746, 1796, 1814 eta 1823 urtetan Unzetatarrak agertzen dira jaube lez.

1 987'en Iñazio Ruiz de la Prada da jaube eta Carmen eta An-

tonio Atxabal bizi dira errenteru lez.

4,5 hektarea.

URIARTE BEKOA Larrinaga auzoan

1704 urtean Pedro Uriarte zan jaube.

1746'en Juan Bta. Uriarte.

1796 eta 1823'en Jose Uriarte.

Gaur etxe bizitza bitan banatuta dago, nai ta jaubetasuna osorik iraun Kristobal Kobeaga'ren oiñordekoen izenan.

Baten, Iñaki Madarieta eta emaztea eta seme bi bizi dira, errenteru lez. 10 hektarea.

Bestean Mario Zatika bizi da bere emazte, seme ezkongai eta alaba ezkondu ta onen senarragaz.

10 hektarea.

URIARTE GOIKUA Larrinaga auzoan

Beste deiturak: Uriarte Nagusia eta baita Antonenekua.

1704 urtean Domingo Urlezaga'ren jaubetasuneko zan.

1746'en F. Artaza.

1796'en eta 1823'en Santiago Unzeta.

Gaur Josefina Berastegi Zabala'ren izenean dago jaubetasuna eta Diego Berastegi bizi da errenteru lez.

Onek baserriko ogiak egiten dauz.

19 hektarea.

URIBARREIM Larrinaga auzoan

1796 urtean Adan'en jaubetasuneko zan.

1823'en Juan Gallatebeitia ezagutzen da jaube lez.

1704 urtean Larrinaga-Uribarren deitzen zan eta Zubieta etxekoena zan eta Domingo Gallatebeitia bizi zan bertan.

Orain Tomas Korta eta familikoak bizi dira bertan, jaubetasuna Tomas'en izenean dagola.

5 hektarea.

URUBILLA Urubiza Artikas auzoan

1796 urtean Martin Itza zan jaube.

Berbera 1823 urtean be.

Errota izan zan.

Gaur utsik dago. 6 hektarea.

Z

ZABALA Barainka auzoan

1 704 urtean Maria Uriarte Zabala zan jaube.

1 746'en M. Leniz Zabala.

1 796'en Pedro Leniz.

1 823'en Jose Atxabal.

Gaur M. Aboitiz da jaube eta semeagaz bizi da, ollo-aziketan jardunaz, iru milla inguru ollo daukezala.

ZARANDONA ANDIKOA Mendazona auzoan

Andikoetxe deituten dautse.

1 823'en Madalena Arriaga'ren izenean egoan.

Gaur Luisa Soloaga da jaube.

Utsik dago. 35 hektarea.

ZARANDONA BEKOA Mendazona auzoan

Bekoa edo Beazkoa be deitzen dautse.

1 704 urtean M. Uriarte zan jaube.

1 746'en Domingo Bengoetxea.

1796'en Juan Bta. Urrutibeaskoa.

1823'en Domingo Barainka.

1 987.- Mercedes Barainka.

Gaur Ageda Arrizabalaga eta bere familikoak bizi dira bertan. 27 hektarea.

ZARANDONA GOIKUA Mendazona auzoan

1 704'n M. Kobeaga agertzen da jaube lez.

1 746'en Jose Agirre.

1 796 eta 1 823'en Juan Aboitiz.

Orain Martin Atxurra eta emaztearen izenean dago, bertan bizi dira, eta lorategiak daukez.

23 hektarea.

ZARANDONA ETXEBARRI Mendazona auzoan

Izen onetako Zarandona'rik ez da agertzen lengo paperetan.

1796 urtean Zarandona ezquerraman deituragazko bat agertzen da eta D. Arrasate, Amorotoarra, bertako jaube.

Etxe au Juan Jose Garatea'ren izenean dago.

Bere orman au irakurri lei:

Zarandu Etxebarria,
Mendazuko Kofradia,
Martin Atxabalen
semerik gaztenak
Juan Bautista Atxabal
eta Rementeria
Ameriketatik etorriak
barriztaua 1907 garren urtean.

Imanol Agirre idazleak bertan igaroten dauz udako oporrak
Madrid'etik etorrita.

ZATIKA GOIKUA Artikas auzoan

1 704 urtean Domingo Agirre zan jaube eta bertan bizi zan.

1746'en Domingo Kortabitarte.

1 796'en Adrian Lejarza eta 1 823'n Jose Lejarza.

Aldi onetan Zatika goikua edo ta Zatika goiena izenak erabil-
ten dira. Gaur Felipe eta Antonio Atxabal'en izenean dago jaube-
tasuna eta bertan bizi dira gaiñerako familiagaz.

1 4 hektarea.

ZATIKA ERDIKUA Artikas auzoan

Zatika Beaskua be deituten dautse.

1 704'en M. Legarza bizi zan jaube lez.

1 746'en berbera agertzen da jaube.

1 796'en Jose Leaegi, bardin 1 823'en.

Bere orman au ipinten dau: Fue reedificada
por Domingo de Atxurra y
Josefa de Leaegi.
Año de 1865

Gaur Jose Mari Atxurra da bere jaube.

Anastasio Lekerika-Uriarte eta familia bizi dira erreteru lez.
8 hektarea.

ZATIKA NAGUSIA Artikas auzoan

1 704 urtean Domingo Urlezaga zan jaubea.

1 746'en Juan Leaegi.

1 796'en Jose Unzeta eta 1 823'en Santiago Unzeta.

Gaur etxe bizitza banatuta dago:

ZATIKA NAGUSIA «MUTIONIE»

Sabin Koskorrotza da jaube eta ama, emazte eta alabagaz

bizi da.

8,5 hektarea.

ZATIKA NAGUSIA (ALBOKUA)

Hipolito Telleria da jaube eta iru neba-arreba bizi dira.

3 hektarea.

ZATIKATXU Artikas auzoan

1 796 eta 1823 urtetan Pedro Arana agertzen da bertako jaube. Gaur J. Bermeosolo Arrate da jaubea eta iru aizta bizi dira amagaz. 6 hektarea.

ZELAI Solarte auzoan

1704 urtean Jakobo Gamarra.zan jaube eta S. Akuriola bizi bertan.

1 746'en Juan Bta. Gamarra.

1 796 eta 1823'en Dgo. Arrasate eta Martin Arrasate.

Gaur Pedro Bilbao da jaubea eta bertan bizi da familiagaz. 1 3 hektarea.

ZEREIMGA TORRE edo ZEREIMGA GOIKO Artikas auzoan

1704 urtean Lekeitio'ko monjaena zan baiña ez eban ordaintzen etxe lez.

1 746'en jaube bardiñak jarraitzen dau, eta F. Etxebarrieta bertan bizi.

1 796'en be monjaen eskuetan jarraitzen eban.

Gaur Domingo Plaza da jaube eta bere emazte eta semeagaz bizi da. 8,5 hektarea.

1 906'en abere leiaketa baten, Aldundiaren saria irabazi eban.

1 944 urtean, bei batek, «Moro» izenekoak, lau txal sortu eban zan batera.

ZEREIMGA BEKOA Artikas auzoan

Etxe au 1796 urtean Lekeitio'ko dominikatar monjaen jaubetasuneko lez agertzen zan.

Gaur Natividad Malaxetxebarria'ren jaubetasuneko da eta bere semeagaz bertan bizi da.

6 hektarea.

7ZERTUTXA Gallate auzoan

1 704 urtean Domingo Uriarte zan jaube eta bardin 1 746'en.

1796'en Domingo Idoiaga.

Gaur Urbano Erkiaga da jaubea eta bere emazte eta seme alabekaz bizi da.

13 hektarea. Tirtxitxa deiturea emoten dautse etxeari.

ZUMETEGI BEKOA Solarte auozan

1704 urtean Jose A. Zumategi zan jaube eta bertan bizi be.

1746'en I. Loperearena.

1796'en Unzeta eta 1823'en Santiago Unzeta.

Gaur Karlos Arrizubieta da jaubea eta emazte era iru seme alabak bertan bizi dira. 13 hektarea.

ZUMETEGI GOIKUA Solarte auozan

1704 urtean Juan Zumategi agertzen da bertako jaube eta bizilagun.

1746 urtean Bizente Renteria kapitanaren eskuetan agertzen da.

1746 eta 1823'en Jose Agustin Renteria, au be itxas kapitana, bere jaube. Gaur etxe bizitza bitan banatuta dago.

Bateko jaube Bitoriano Madariata'n oiñordekoak agertzen dira eta Jose M. Madarieta Atxabal bizi da.

10 hektarea.

Bestea utsik dago eta Antonio Garate Atxabal'en izenean jaubetasuna. 8 hektarea.

ZUBIETA Baserria

1704 urtean «la casilla de Zubieta» deitzen da eta etxe erdika lez ordaintzen eban.

ZUBIETA Jauregia

Lengo denporetan, antxiñetatik, torrea egon zan, Iturriza'k bere kondairan esaten dauanez. Gero IV garren Enrike erregearen aginduz beratu eragin eben torre ori, jauntxo batzuen asarreak birtartean zirala. Eta orde, Zubieta jauregia egin 1710 urtean.

Batzuk aurrez beste torreren bat egon ete zan esaten dabe Lekeitio'ren barruan, ondartzan, baiña kondaira idazleak diñoe Yarza'tarren torre zarra egoan lekua be Zubieta zala, Ipazter'en.

Adan de Yarzatarrak euren familiko izenik galdu barik zaindu izan dabe luzaro jauregi eder au.

Jauregi eder eta aberatsa. Ez bakarrik bere egituraz, bai bertako edergarriakaitik be.

Fernando Cuadra Salzedo'k «Los cuadros de Goya en Vizcaya» izen buruagaz idatzitako lan baten esaten eban:

«Entre los tesoros artísticos que se encierran en Vizcaya, es uno de los menos conocidos el que visitamos en Lekeitio recientemente, y que guardan con la estima adecuada los señores de Adan de Yarza en el Palacio de Zubieta, jurisdicción de Ispaster». (*Vida Vasca, XIII, 1936, 211-217 Orria/detan*).



Au da: «Etizkaian gordeten diran erti-lanetako altxorren artean, gitxien ezagutua, oraintsu Lekeitio'n ikusi doguna da, eta Adan de Yarzatarrak Zubieta'ko jauregian, Ipazter'eko legepekoan, bear dan maitasunez gordeten dabena da».

Itxuraz Goya pintorea Zubieta'ko jauregian egon zan 1789 urtean eta orduntxe margotu zitun Maria Barbatxano, Zubieta'ko andrea; Bernarda Tabira'koa eta Adan de Yarza-Tabira senar-emaztien seme zan Antonio.

1834 urtean Kristiña erregiñaren aldeko gudariak Lekeitio'n sartu eta urte bi egin zituen bertan. Bitarte orretan Dominikar monjaen konbentuan militarrentzako gaixotegia ipini nai izan eben, eta orretarako ango monjak Zubieta'ko jauregi onetan sartu.

1875 urtean, Karlos erregetzakoa Lekeitio'ra joan zanean, Zubieta'ko jauregi onetan bizi izan zan. Alaz eta, erregetzako orrek Uribarre'en bizitea naiago izan ba'leu, etxe a be gertuta euki eben beretzako.

GAUR

Gaur Ipazter erri txiki baiña aizetsu eta egokia da. Baserri asko barriztu dira eta lengo izaterik galdu barik, gaurkotu.

Auzoetarako bideak egin eta egiten, eta zarrak gaurko premiñetara zabaltzen igarten dira.

Basoak aberats zaintzen alegintzen dira bertakoak.


Etxe askotan telefonoak laster ipiniko dira, edo ta liburu au agertu ordurako ipinita.

Ez da bakarrik baserri erri.

Or dagoz bestelako industriak be. Or Lealde Koperatiba; or Kazalis eta Aiztogintza edo kutxilleri Industriala. Une onetan geldi, baiña Ingargintza be lanean ipinteko asmotan.

Eta or dago, lengo pelota toki zarraren alboan, erri askok eurentzat naiko leuken «Areitz bi» Kiroldegia.

1986 urtean zabaldu zan. Izena bera, «Areitz bi», Ipazter'en ezagutu izan diran areitz andi biren gomutaz ipinia da, ala diralako eleiz-ate onetako armarrarian agertzen diranak be.



Pelota, idi-proba, gazteen jolas eta abarretarako jaso dan leku barri ori, ederra da benetan. Bertan, barruan, jatetxe ospatsu bat, tokirik atsegiñetan gertutako jatetxeen lotsa barik.

Larogei eta amabost milloer peseta (95.000.000) kostatu zan Kiroldegi au, Ipazter'eko udalak Bizkai Aldundiaren Lanetarako Foru Plangintzako diruei esker eta bertako Kultur Sailletik artutako laguntzei esker egin eta ordaindua.


Or dagoz baita eskola barriak, argi eta zabalak.

Or erriko plaza txiki baiña dotorea, laster, «sakristauaren» e-
txea barriztuta geratzean, euskal plaza itxuran jator eta eratsu geratuko dana.

Ipazter, erri txiki, baiña arduraz zaindu dana da.

Erri ixil, baketsu eta txukuna.

Lengo eta oraingo erria.




*Ikustéh dozu goizean
argia asten danean,
menditxo baten gaiñean,
etxe txikitxo aurre zuri bat
lau aitz ondoren erdian,
txakur zuri bat atean,
iturritxo bat aldean?
Antxe bizi naz bakean.*

AUZORIK - AUZO BASERRIRIK - BASERRI...


*ñfaii ez dan gaztelua,
maite dot nik sorlekua,
aiten aitak autatua.
Etxetik kanpo zait iruditzen
nunbait naizala galdua,
nola an bainaz sortua,
an itxiko dot mundua,
galtzen ez ba dot zentzua.*



Aboitz nagusia




Aboitz Etxebarri




Adurriaga




Agarre



Agarre (Aguirre Solarte)



Agirre Eskalante (Alagarre)




Aixe Errota



Aixe Eder





Aldeko **Beko** (Kortazar Aldekoa)



Amillaga







Ansorena



Arana (Gardata Aranekoa)



Arana Torre




Arbiondo



Argin Errota




Arritola




Arrizubieta




Arteagakua




Arteleorrage



Artzaran - Artzako



Artzail Beaskoa



Artzail Erdikoa



Artzail Goikoa



Atx Atzekoa



Atx Aurrekoa (Atxaurre)



Atxabal




Axpe Aurreko



Axpe Erdiko




Axpe Gilintxaran (Basokoetxe)



Axpe Giliz (Txutxuneko)



Axpe Kalzada




Balzola (Jaunene Andresena)




Barainkena




Barrenengoa (Zertutxa)



Batiz Nagusia



Batiz Bekoa (Ateun)




Beitxi



Beitxi Beko





Beitxi Goiko (Gartzaiianekua)




Belaustegi



Bengoetxea




Beña




Beaskoa




Doloraga Bekua



Eguren Goikua




Erkiaga Bekua



Erkiaga Goikua



Errementarikua



Esmeitxu



Etxebarri Zarra




Etxebarrieta



Etxetxu



Ezuneta Aurrekoa




Goitxi



Gallate Erdikua



Garai



Garro (Solarte Erkiaga)



Gasparrenekua (Bidegain)







Goenekua



Goenengua



Gallate





Goxeaskoa (Naño)





Igartua



Iparragirre




Iratzegi Beaskoa



Irzatzegi Erdikua





Irzatzegi Goenengua



Irueta






Kurtziakua



Laka



Larrinaga Bekua



Larrinaga Goikua




Legortza




Madarieta (Mata)





Menedezu Bekua



Mendezu Erdikoa



Mendezu Goikua







Olako Etxebarri



Oranegi




Ormaegi Aurrekoa (Zamora)



Ormaetxe





Otegi




Solaun Beko (Soloaga Beko)



Solaun Goiko (Soloaga Goiko)




Soloarte Goitia




Soloarte Nagusia (Aldeko Goiko)




Sosuenekoa




Torre



Torre Barri



Txapel




Txanton Torre




Urikoa




Urkiaga (Urkixa)



Urkixa Aurre



Urkixa Torre



Uriarte Beko




Uriarte Goiko (Antonekua)




Úrubilia (Urubiza)




Zabaia



Zarandu Andikoetxea




Zarandu Bengoetxea



Zarandu Etxebarri



Zarandu Goikoetxea




Zatika



Zatika Erdikua (Beaskoa)



Zatika Nagusia (Mutione)



Zatika Nagusia (Albokua)




Zatikatxu



Zerenda Goiko (Zerenga Torre)




Zertutxa (Tirtitxa)





Zubieta (Baserria)



Zubieta (Jauregia)




*Denpora /atzagoetan, ikastola oneitan
ereitu zan ipaztertar baserritarren jakintza azia.
Euren zeregiña bete eben.*





*Ipazter
Itxas bazter,
mendi bazter,
Bake bazter,..!*





*Baserrian beti dago lana
Eta lanak sortuten dau jana.*



*Baserrietan
ez dau egunak
ordurik
ez eta lanak
errukirik*





*Gizonak aiña andrak,
andren parean gizonak,
gazteak aiña zarrak,
Gizonen parean andrak,
beti dauke nun egin lan
basoan nai sukaldean.*



BOST EMAKUME MENDIGOIZALE

(Izpazter'tik Urkiola'ra

*A unek Mendigoizale
zintzo kementsubak,
neke-bildurrik iñoz
ezautu ez dabenak.*

*Egun sentijan urten
/zpzazter'tik goxian...
illunabar goitzxuan
Urkiola'n zirian.*

*Eta ez uste gero
dakuanik Izpazter,
Urkiola'tik berantz...
Mañari baxen laster.*

*Gitxienez bai-dira
irurogei aneurkin;
sail polita neurtzeko
emakumeak oñekin.*

*Sei-amarta sei urte
bizkarran dirala,
eiteko ezta gero
ibiltaldi makala.*

*Etzetik urten eta
Urkiola'ragiño,
ez eben itzik egin
euskeraz garbi baño.*

*Euzkeraz bidietan,
ostatu naiz elexan,
beti euzko-eredu
kistar zintzuen gixan.*

*Gora Izpazter'eko
Todore ta lagunak,
mendigoizalietan
diralako gurenak!*

*(1932-X-16'en Enbeita'tar Kepa «Urretxindorra»k
«Euzkadi» egunerokoan agerturikotatik atarata).*

AURKIBIDEA

Gaia

Irakurleei

Izena

Mugak

Auzoak eta egoera

Izenen esan-naia

Etxeak eta bizi lagunak

Izkuntza

Mendiak, errekek eta itxasertza

Garaixak, errotak, armarridun etxeak

Eleiz-bizitza

Izpazter'eko etxeak 1745-1746 urtetan

Jaubeak era errenteruak

Erriko ondasunak lengo gizaldiaren asieran

Zerga banaketa, 1814 urtean

Etxe eta emaitzen zeaztasunak

Erri jakintza

Kobak eta sinistek

Ipuinak: Sosua, azeria eta errotako txakurra.

Zatika'ko abadegaia Salamanca'n.

Itxas gaiak

Kaia eta eleiz-kantak.

Ipaztertarrak Colon'egaz.

Zoritxarreko «Ispaster».

Arrantzale zarra eta Otoio.

Gizonak

Juan Amix.

Jazinto Arana.

Aita Agustin Basterretxea.

Jakingarriak

Gertaera odoltsu bat.

Ipazter'ko perretxikuak.

Ipazter'ko ikusbide bat.

Udaletxea.

Erriko artxiboa.

Erriko kartzela.

Parrokiko jaietarako kurutzea

Insignis piñuaren amuma.

Arropain eta Gardata'ko tabernak
eta lekeitiarrak.

Idi kontrabandoa.

Arboladiak.

Ipazter'eko abestiak

Ua, ua...

Bakarrik aurkitzen naiz.

Sakramentuak zazpi dira.

Euntegietan daukat.

Urteizu jendea.

Pasiñoia.

Iru mutillek Ipazter'en.

Lekeitio'ren mugak bertsoan

Baserri etxeak eta euren auzoak gaur

Baserri-etxerik etxe

Gaur

Argazkiak